



# 51 ERREZETA URAKASLEENTZAT.

NOLA KOZINATU BOLUNTARIO-TALDE BAT HIRE ESKOLAN.

■ Hezkuntza baliabideak ALBOAN.

...

- 29. Bide-laguntza nazioarteko boluntariotza esperientzetan. (2011)
- 30. Erabakiak aldatu. Eragiteko metodologia. (2011)
- 31. Munduko Hiritarrok. Kulturartekotasuna. Haur-hezkuntza. (2013)
- 32. Munduko Hiritarrok. Kulturartekotasuna. Lehen-hezkuntza. (2013)
- 33. 51 errezeta irakasleentzat. Nola koinatu boluntario-talde bat nire eskolan. (2014)

Edizioa: ALBOAN

2014ko urria

Diseinua eta maketazioa: Erreka Multimedia S. Coop.

Inprimaketa: Printheus

Lege-gordailua: BI-1634-2014


---

Lan honen zati bat erreproduzitzeko baimena ematen da, baldin eta helburu komertzialik gabe egiten bada eta iturria aipatzen bada.

# AURKIBIDEA



- |  |    |
|--|----|
| 1. Zergatik aurkezten dizkizugu errezeta hauek?  | 5  |
| 2. Kuzinatzen hasteko oinarriko osagaiak.        | 9  |
| 3. Errezetak.                                    | 27 |
| Hasierakoak                                      | 29 |
| Lehenengo platerak                               | 34 |
| Bigarren platerak                                | 49 |
| Postreak   | 62 |
| 4. Mahaira! Goazen jatera.                       | 79 |
| 5. Sukaldeko trikimailuak.                       | 82 |
| 6. Tresna lagungarriak.                          | 84 |
| 7. Idatzi hemen ikasturte honetarako zure menua. | 86 |





# 1. Zergatik aurkezten dizkizugu errezeta hauek?



*Esaten badidazu, ahaztu egingo dut. Erakusten badidazu, gogoan izango dut.  
Eginarazten badidazu, ikasi egingo dut.*

*B. Franklin*

Eskola komunitatean eta komunitatea eskolan. Hori da **ALBOAN**etik ikastetxeei proposatzen diegun horizontea, beste batzuekin partekatutako ibilbidea eraikitzeko. Auzoari edo herriari irekitako eskola izatea, ingurune irekia topatuko duena, hori da pertsona eta gizartea aldatu nahi dituen eta, aldi berean, heziketa-prozesuen dimentsio soziala berreskuratu nahi duen hezkuntzaren erronka.

Eskolan, ikasleak hezteko eta prestatzeko papera ikastetxeko irakasleei, irakasle ez diren langileei eta gurasoei dagokie, eta baita inguruneari ere, hezkuntza-erakundea egunero elikatzen delako inguruan duen komunitatetik. Horri esker hezten, prestatzen eta formatzen dira ikasleak eta gizartea aldatzeko prozesuan parte hartzerantz helduz, eraldaketaren aktore bilakatuz.

Eskolaren eta komunitatearen arteko lotura hori kontuan izanda, eta oinarri hartuta gure eragina ez dela amaitzen zuzenean ezagutzen ditugun pertsonengan eta, beraz, gure ekintzak iritsi daitezkeela batera ezagutzen ez ditugun pertsonengana (Stanley Milgram-en "6 mailako tartea"ren teoria), errezeta-liburu honek lan-tresna izan nahi du boluntario-taldeak sortzen, formatzen eta laguntzen dituzten irakasleentzat.

## Helburuak

- Gazteei akonpainamendu prozesuetan dabilzan pertsoneri ilusia sorraraztea.
- Laguntzaileen lana aberastea ideia eta proposamen berrien bidez.
- Laguntzaileek baliatu ahal izango dituzten metodologiak erakustea.
- Adibide gisa, benetan eta arrakastaz burutu diren hainbat proiektuen adibideak biltzea eta erakustea.
- Laguntzaile-lanerako erabilgarriak izango diren baliabide bibliografiko eta materialak aurkeztea.
- Laguntzaileen lana aberasteko irakasle-sareak sortzeko konexioak bideratzea.


Azken finean, hemen aurkezten dizkizugun errezeta eta proposamenekin zure programazio propioa sortu ahal izango duzu, lagun egiten diozun taldea prestatzeko bereziki egokitutako ekintzak burutzeko. Gainera, zure testuinguruari eta taldeari ongien egokitzen zaion ebaluazioa aukeratu ahal izango duzu. Azkenik, zure antzera, ikastetxetik abiatuta gazteei errealitatea aldarazteko prozesuetan laguntzen ari diren beste irakasle batzuen arrakastak eta praktika onak ere ikasgai baliagarriak izango zaizkizu.



---

Gako-hitza konpromisoa dela esan dezakegu. Konprometitzea eta “sartzea” funtsezkoak dira gizartearen aldaketaren parte izateko. (16 urte, boluntarioa eta Donostiako San Ignazio Ikastetxeko ikaslea).

---









## 2. Kuzinatzen hasteko oñarrizko osagaiak.



*“Zenbat eta historikoki anesthesiatuago, zenbat eta murgilduago egon uster, ukitu ezin den -eta are gutxiago aldatu- errealitatean, orduan eta etorkizun gutxiago izango dugu.”*

*P. Freire, A la sombra de este árbol, El Roure, Barcelona, 1997, III*

**ALBOAN** en pentsatzen dugu funtsezkoa dela ikasleengan jarrera kritikoa sorraraziko duen heziketa ematea, hausnartzen irakatsiko diena, pertsona bera eta ingurunea aldatzeko bidea irekiko duena, guztientzako mundu zuzenago eta justuago bat eraikitzeko.

Horregatik, ikastetxeetan solidaritate eta boluntariotzako proiektuen aldeko apustua egiten dugu, eta eskolako guztien parte-hartzea eta inplikazioa lortu nahi dugu: ikasleekin hasi eta irakasle ez diren langileetara, tartean irakasleak, zuzendaritzakoak eta familiakoak sartuz. Guretzat funtsezkoa da era horretako proiektuei balioa ematea eta eskolako curriculumean sartzea lortzea. Horretarako aukeretako bat boluntariotza eta solidaritateko proiektuetan landutako abileziak curriculumeko kompetentziekin lotzea da, hainbat esparrutatik egiten den lana indartzeko eta aberasteko. Zehazki, gizarte eta herritartasunerako kompetentziarekin eta autonomia pertsonalaren kompetentziarekin lotu ditzakegu.

Asko dira boluntario-taldeek formazioko eta lagun egiteko prozesuen abiapuntu eta elikagai gisa balia ditzaketen metodologiak. Proiektuak diseinatzeko garaian erabil ditzakezun iturri batzuk aurkeztuko dizkizugu jarraian, ikasleekin esparru honetan lan egiteko oinarriak ezartzeko lagunariak izango zaizkizulakoan. Proposamen metodologiko bakoitzetik pintzelkada batzuk partekatuko ditugu, gero zure lanerako baliagarrienak eta interesgarrienak iruditzen zaizkizunak gehiago sakondu ahal izan ditzazun.

## 1. Ikaskea eta Zerbitzu solidarioa

Hezkuntza-praktika honen bidez, neska-mutiek ikasi egiten dute, ingurunea hobetu nahian, inguruan dauden benetako premiei erantzuna ematen saiatzen diren bitartean.



Komunitateari zerbitzua ematea ikaskuntzarekin integratzea. Hezkuntza-proiektu berean, edukiak, abileziak eta balioak ikastearekin integrazioa.



- **Ikaskuntza:** hezteko intentzio esplizitua du, ezagutza, abilezia, jarrerak eta balioak eskuratzeari lotua.
- **Zerbitzu solidarioa:** protagonistek komunitateari zerbitzua emateko duten interesa mugiarazten du.
- **Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa:** ikastea lotzen du herritar gisa aktiboki jardutearekin.



<http://www.zerbikas.es>, <http://www.aprendizajeservicio.net>

**Ikaskeraketa eta Zerbitzu Solidarioak** dakarren berritasuna bi elementuak konbinatzea eta, ondorioz, batak bestea aberastea da. Zerbitzuak zentzua ematen dio ikasteari, funtzional, baliagarri bihurtzen du eta gainera curriculumaren eta antolamenduaren inguruko beste elementu didaktiko batzuk bideratzen ditu. Ikasteak zerbitzuaren kalitatea hobetzen du, sakontasuna ematen dio, zer egiten den eta zergatik egiten den hausnartzen laguntzen du. Horrela lortzen den emaitza bi osagairen batura soila baino handiagoa da, produktu berri bat sortzen da. (Zerbikas Fundazioa, Zerbikas gidak 2).

Ikaskeraketa eta Zerbitzu Solidarioak, Puig, Batlle, Bosch eta Palos-en hitzetan, ikasteko eta komunitateari zerbitzua emateko prozesuak konbinatzen dituzte ongi artikulatutako proiektu bakar batean, parte hartzen duten pertsonak ikasiz joan daitezzen ingurunea hobetzeko lanean diharduten bitartean inguruko premia errealei erantzuna ematen.

Era berean, Ikasketak eta Zerbitzu Solidarioak inklusio-prozesuak errazten ditu, autoestimua areagotzen du eta eskusio-prozesuak prebenitzen dituzte.

## 2 Ikaskuntza-komunitateak

Hezkuntza-praktika honetan ikastetxea giza eta lurralde-komunitate gisa tratatzen da: hezkuntza eta kulturako proiektu propio bat landuz, egiten diren jarduera guztien bidez haurrek gehiago ikas dezaten.



Eskolaren hezkuntza-proiektua eraikitzea, eskolako pertsona guztiak inplikatzuz, ahulezien eta indarguneen diagnostikotik abiatuta.



- **Komunitatea:** ikasgela osatzen duten ikasleak, irakasleak, zuzendaritzakoak, irakasle ez diren langileak, eskola, auzoa, ingurunea, guztien artean ikasleen ezagutza eraikitzen dutenen multzoa.
- **Irakurketa dialogikoa:** testu beraren inguruan neska-mutilen interakzioa ezarritik ikasketa areagotzeko metodologia. Literatura-tertulia dialogikoak edo familiekin partekatutako irakurketa aipa ditzakegu adibide gisa.
- **Ikasketa dialogikoa:** berdintasunean oinarritutako, hezkuntza-komunitateko guztien arteko elkarriketa, ikasle guztientzako hezkuntza-berdintasuna lortzeko helburu solidarioarekin.



<http://www.comunidadesdeaprendizaje.net/>

**Ikas-komunitatea,** giza eta lurralde-komunitate bat da guretzat, hezkuntza- eta kultura-proiektu propioa izango duena guztien onerako lan egiteko, tokiko garapena eta garapen pertsonala sustatzeko, komunitatea bera hezteko, eta komunitateko haur, gazte eta zahar, guztiak hezteko ahalegin kooperatibo eta solidarioari esker, ahulezien eta indarguneen diagnostikoan oinarrituta, ahuleziak gaindituz eta indarguneak sendotuz joateko. Gure kasuan, ikas-komunitateaz ari garenean, ikasgelaz, eskolaz eta inguruneaz ari gara.

Ikas-komunitateetan ikasteko prozesuan eta ikasleen garapenean zuzenean nahiz zeharka eragina duten pertsona guztiak inplikatzeko dira: irakasleak, familiakoak, adiskideak, auzokoak, auzo-elkarteetako eta herri-elkarteetako kideak, boluntarioak, etab.

### 3. Herri-hezkuntza

Prozesu eraldatzailea, parte hartzen duen ikaslea protagonista bihurtzen duena. Hezkuntza-praktika honek hainbat fase ditu, eskema zirkularrekoak: errealitatea eta norberaren jokabidea aztertzea, errealitatea hobetzeko beste modu batzuk birpentsatzea, errealitatea eraldatzeko jardutea. (Documentación Social, 1998; Marlen Eizaguirre, diccionario de Hegoa.)



Aldaketaren eta eraldaketaren protagonista izango diren ikasleak prestatzea



- **Zapalduaren pedagogia:** bi fasetako pedagogia humanista eta liberatzailea: lehenengo fasean zapalkuntza konpromiso eraldatzaile bihurtzen da, eta bigarrenean errealitatea aldatu da eta zapalduak orain gizon eta emakume liberatuak dira.
- **Elkarrizketa liberatzailea:** hezitzailearen eta hezigaien artean hezkuntza-prozesuan zehar sortzen den elkarrizketa. Hori da Hezkuntza Problematizatzailea, ikasle aktiboak eraikitzea bultzatzen duena errealitatea alda dezaten humanizazioaren bidez.



[http://www.uhu.es/cine.educacion/figuraspedagogia/0\\_paulo\\_freire.htm](http://www.uhu.es/cine.educacion/figuraspedagogia/0_paulo_freire.htm)  
<http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/83>

Freirek proposatzen duen Herri Hezkuntza inspiragarria izan daiteke lagun egiteko prozesuetarako oinarri gisa. Kasu horietan ikaslea parte-hartzaile aktibo bihurtzen da gizarte jakin baten barruan dagoen ikas-komunitate batean eta berak hartzen du bere ikasketa-prozesuaren ardura. Wegner-ek ere antzeko kontzeptu bat proposatzen du gizakiek komunitateak osatzen dituztela eta komunitate horietako pertsona guztiek parte hartzen dutela ikaskuntza kolektiboa sortzen eta metatzen esaten duenean.

## 4. Ikasketa Kooperatiboa

Ikasleen talde-lanean oinarritutako ikasteko metodoa, ezarritako helburuak lortzeko hainbat teknikaz baliatuz.



Ikaslea inguruan dituen pertsonekin harremanetan jartzen da, eta horrek elkarrekin hitz egitea eskatzen du, debatitzea, entzutea, kontrastatzea, gatazkak konpontzea, parte hartzea... horretarako irakasleek konfiantza sortzen lagundu behar dute taldean, eta baita erantzukizuna eta espiritu kritikoa ere.



- **Interdependentzia positiboa:** taldeko partaide bakoitzak gainerako guztiekin lotura sentitzen duenean lortzen da, berak ikastea gainerako guztiak ikastearekin lotuta dagoela ikusten duenean.
- **Aldibereko interakzioa:** Ikaste Kooperatiboan, nahitaezkoa da talde osoak partekatzea ikasten ari dena, ikuspegi desberdinei buruz debatitzea, eremu fisiko bera partekatzen duten bitartean.
- **Erantzukizun indibiduala:** taldeko lanak ikasleen artean banatzen dira, eta horrek ikasle bakoitza egiten du azken emaitzaren erantzule, ikasteko gaitasuna erakustera behartzen du eta talde osoari laguntzen dio ikasten.



[http://innovacioneducativa.upm.es/guias/Aprendizaje\\_coop.pdf](http://innovacioneducativa.upm.es/guias/Aprendizaje_coop.pdf)  
[http://dpto6.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/apr\\_coop.pdf](http://dpto6.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/apr_coop.pdf)

Kagan-en (1994) hitzetan, Ikasketa Kooperatiboa “estrategia-multzo bat da, ikasleak gai jakinen baten gainean interakzio kooperatiboan jardutera bultzatzen dituena, ikasteko prozesuaren zati integral gisa”. Horrela, ikaslea hezkuntza-prozesuaren protagonista bihurtzen da eta lorpen pertsonalarekin batera, talde osoaren lorpena ere bilatzen du.

Hauetako dira Ikaste Kooperatiboan lantzen diren konpetentzia batzuk, Apodacaren arabera (2006): informazioa bilatzea eta antolatzea, problemak sormenez ebatzea, ahozko adierazpena lantzea eta pertsonen arteko abileziak, hala nola gatazkak konpontzea, talde-lana, erantzukizun pertsonala, etab.

## 5. Hezkuntzako ekintza-plana Boluntarioratzatik abiatuta

Eskema honi jarraitzen dio metodologiak: errealitatea analizatzea, ikastetxeko gazteen errealitate sozialaren diagnostikoa egitea, laneko lehentasunak planteatzea, proiektua formulatzea eta gizartearekiko boluntario-ekintzaren barne-antolaketa egitea, inguruko organizazioekin koordinatuta.



Proposamen bat **eraikitzea** ikastetxe osoak boluntarioratzaren aldeko apustua egin dezan, boluntarioratzatik abiatuta, ikastetxeko ikasleekin eta eskola dagoen auzoarekin eta bertako organizazioekin koordinatuta.



• **Irekiera:** L. Arangurenentzat (2001), posibilitate berriak ikusteko gai den begirada da, hezkuntzan interkonexioak egiteko aukera ematen duena, eskolan pentsamendu transbertsala ahalbidetzen duena eta nahitaezkoa orain gauden testuinguruan aldaketa lortu ahal izateko.

• **Ekintza-proiektua formulatzea:** premiak eta errealitatea analizatu ondoren, ikastetxean egin daitezkeen jarduerak planteatzea, hiru modalitatetan banatuta: planifikazio minimoa behar duten jarduerak, jarduera programatuak eta egunerokoak eta espontaneoki eta bat-batean sortzen diren sozializazio-jarduerak.

• **Lurraldeko Hezkuntza Sarea:** auzoan, ingurunean edo globalki, errealitatea konplexua denean, garrantzitsua da Lurraldeko Hezkuntza Sarea (L. Aranguren, 2001) sortzea auzoko haurren hezkuntza globala ardatz hartuta, eta horretarako beharrezkoa da eskola inguruko erakundeekin lankidetzan aritzea.



<https://www.raisfundacion.org/sites/default/files/GUIA%20VOLUNTARIADO%20RAIS.pdf>

Auzoari irekitako eskola da “bizitzarako hezten duen eskola bat, martxan dagoen gizartean pertsona kritiko eta sortzaileak xertatzeko lan egiten duena” lortzeko oinarria, Luis A. Arangurenen iritziz. Arangurenen hitzetan, herritar arduratsuak sortzen dira eskubideak konkistatuz eta betebeharrak garatuz eta horregatik landu behar ditugu ikasleek ingurunearekiko duten erantzukizunaz eta arduraz eta konpromisoaz mintzo diren estrategiak, hiriaz haraindi hedatuko direnak, planetaren kontzientzia jabetzeraino. Kontzientzia horren oinarriak honela zehazten ditu Arangurenek: kontzientzia ekologikoa, gure bizi-loturak go-



gorarazten dizkiguna eta bizitzarekiko begirunea erakusten duena; informazio hautatua, errealitatearen analisi kritikoa egiteko aukera ematen duena; erantzun globala emateko gaitasuna, problema eta errealitate lokalak eta globalak konektatuz; eta, azkenik, pertsona-profil konkretu bat, bizitza prozesu gisa ikusten duena eta hortik abiatuta historiaren eraikitzaile eta protagonista bihurtzen dena..

## Pedagogia Inaziotarra

Errealitateari ikasleen ikuspegitik begiratzea, ikasleen esperientziatik, gogoetatik eta ekintzatik abiatuta; eta etengabe aldatuz joatea irakasleak ikasleen ikaskuntza eta gaitasun kritikoa bidera dezan, egiaren eta bizitzaren zentzuaren aurrez aurre jarrita.



Ikasteko abilezia konplexuenak garatu nahi ditu, hala nola ulermena, aplikazioa, analisia, sintesia eta ebaluazioa, eta hausnarketarekin osatu, ikasleek barnera dezaten ikasten dutenaren esanahia eta giza garrantzia, heldutasunera iristeko bidean aurreratuz eta errukiberak izaten ikasiz.



- **Ebaluazioa:** alderdi akademikoak baino gehiago hartzen ditu, "ikasleen garapen pertsonala, besteentzako pertsona gisa" aztertzen baitu. Funtsezkoa da ikasleen eboluzioa aldizka ebaluatzea, helburu horri buruzko jarrereri, lehentasunei eta ekintzei dagokienez. (Javier Duplá SJ, La pedagogía ignaciana, una ayuda importante para nuestro tiempo)
- **Alaitasuna da muina:** alaitasunak erraztu egiten ditu hartzen ditugun erabakiak. Loiolako San Inazio esan zuen atsekabe-garaian ez dela aldaketarik egin behar, eta printzipio hori aplikatzen zaie boluntario-taldeetan parte hartzen duten ikasleei ere, formatzen ari direlako eta kontzientzia kritikoa eraikitzen ari direlako, etengabe aldaketak eta aukerak egiten.
- **Bizi-esperientzia:** alde zehatzeko formazioarekin eta ikasleek bizi izandako errealitatearekin kontaktuan eraikitzen da prozesua. Irakaslearen figura, une oro, laguntzailearena da, ikasleari lagundu behar dio gertatzen zaizkion egoerak interpretatzen, eta argi egin behar dio ikasleak ematen dituen urratsetan.



<http://www.acofipapers.org/index.php/acfipapers/2013/paper/viewFile/458/216>

[http://www.cerpe.org.ve/tl\\_files/Cerpe/contenido/documentos/Identidad%20Ignaciana%20-%20Modulo%20del%20DGS/MIPIIUnidad1\\_T3\\_8p.pdf](http://www.cerpe.org.ve/tl_files/Cerpe/contenido/documentos/Identidad%20Ignaciana%20-%20Modulo%20del%20DGS/MIPIIUnidad1_T3_8p.pdf)

Boluntario-talde bati lagun egiteko lana eraikitzeke beste zutabe bat **paradigma inaziotarra** da, ikasleen jarduerari eta parte-hartzeari osagai espirituala eta funtsezkoa eransten diena.

Bost urratsen bidez eraikitzen da paradigma inaziotarra: testuingurua, esperientzia, hausnarketa, ekintza eta ebaluazioa. Eta urrats horiek etengabeko prozesuan egiten dira, bizitzan zehar hazten jarraitzeko irekita egoten laguntzeko. (Pedagogía ignaciana, un planteamiento práctico. V. Dominuco) (La pedagogía de los jesuitas, ayer y hoy. 3. argitaraldia, 2005).

“La persona en el camino de Ignacio, Ediciones Mensajero, 2005” lanean, metodologia honen bitartez pertsonengan garatzen diren 4 ezaugarri aipatzen dira, eta horien artean bizipen espiritualari lotutako bat dago. Hauek dira lau ezaugarriak:

- Nortasuna: pertsona errekontziliatu gisa hazteari lotutako ezaugarriak.
- Solidaritatea: besteentzako pertsona izateari buruzko ezaugarriak.
- Partaide sentitzea: besteekin batera pertsona izatera bideratutako ezaugarriak.
- Bizipen espirituala: odena oparitan jaso dugula erakusten digun bizi-esperientzia, eta, beraz, era berean erantzun behar dugula azaltzen diguna, doakotasunaren kultural bizi garen esker oneko pertsona gisa.

Azken finean, paradigma inaziotarrean oinarritutako prozesuak pertsona konpetenteak, kontzienteak, errukiberak, konprometituak, sortzaileak eta elkarrekin bizitzeko gai direnak egitera eramaten du. Azkeneko bi ezaugarriak ALBOANen ekarpenak dira, gure iritziz, ibilbide hori burutzen duen pertsona bat gai izango delako pertsona guztiekin harmonian eta begirunez bizitzeko eta elkarbitza berdintasunean egiteko estrategiak lantzeko.

*“...pertsonak ikustea... esaten dutena entzutea... egiten dutenari begiratzea...”*

*(Ejercicios espirituales de San Ignacio de Loyola, 106-108)*

## 7. Parte hartzen ikasteko hezkuntza

Parte hartzeko guneetan partaide izateko abileziak sortu, kudeatu eta erraztea, gaitasun kolektibo eta sozialak sorraraztea: hori da parte hartzeko heztea. Prozesu motelak eta nekezak dira, hainbat elementu koordinatzea eskatzen dutenak pertsonengan aldaketak egitea lortzeko eta berdin tokiko ingurunean eta ingurune globalean ere. (Parte hartzea: garapenerakogakoa. Hiritar parte hartzea lau esperientzi, ALBOAN.)



Hiritar orok parte hartzeko duen eskubidea betetzea nahi du eta jarraibideak eta abileziak garatzen ditu gazteek eskubide hori egikaritu ahal izan dezaten erantzukizunez, gizartearen garapeneraren erabateko aktore bilakatuta.



- **Komunitatearen esparrua:** parte hartzeko gune pribilegiatua eta ezinbestekoa. Ikastetxea ere komunitatearen zati da, eta, beraz, aktore izatea dagokio ikasleei gaitasunak, jarrerak eta abileziak eskuratzen laguntzeko ingurunean parte hartu ahal izan dezaten ikuspegi kritikoarekin eta eraldatzeko gaitasunarekin.

- **Prozesua:** parte hartzeko heziketaren prozesuan hainbat baldintza bete behar dira. Parte hartzen duten pertsonak sentiberak izan behar dute, jabetzeko eta ulertzeko gaitasuna izan behar dute, erabakiak taldean eta modu antolatuan hartu behar dira prozesu guztian zehar, hartutako erabakiekiko konpromisoa eta ardura behar da, eta aurrera jarraitzen ahalegindu behar da; azkenik, ezinbestekoa da egindako ekintzak barneratzea.

- **Esperientzia:** praktika edo esperientziak egitea da ikasten eta aurrera egiten laguntzen duena, errealitateari buruz jarduteko modua da errealitate hori aldatzeko aukera ematen diguna aurreko prozesuan ikasitako gakoak aplikatuz.



<http://redasociativa.org/creandofuturo/>

<http://www.injuve.es/sites/default/files/guiaeducacionparalaparticipacion1.pdf>

**Parte hartzeko heziketa** funtsezkoa da eraldaketa-prozesuetan inplikatu nahi duten boluntario-taldeei lagun egiteko prozesuetan. Horrelako prozesuetan, Renée Jablkowski-ren iritziz, funtzio subjektiboak balioan jartzeko eta erreskatatzeko lan egin behar da, subjektibotasuna bere osotasunean lortzeko, eta taldeak osatzen dituzten pertsonen aktore izaten utzi behar zaie, elkarrekin jardun dezaten sormenez eta protagonismo osoz.

Asko dira ikasteko eta ikasleekin lan egiteko metodo honetan oinarritzen diren proiektuak, izakiaren ikaskuntzaren garapena, ikasten ikastea, erratzen ikastea, eta komunikazioa eta elkarrizketa ikastea bilatzen dutenak.

### 8. Arte komunitarioa

Artea eta sormena gizartean parte hartzeko eta ikasteko eredu gisa, baita ikastetxean ere. Arte-esperientzien bitartez erakitzen dituzten proiektuetan, gizartean parte-hartzea eta konpromisoa sustatzen dute ikasleek eta, halaber, objektuak eta irudiak modu sinbolikoan erabiltzea ekintzak adierazteko, hausnarketa, zentzua duen artea, ikerketa, sormena eta eraldaketa bultzatzen duena, sortzea.



Ikasleak eta ikasleen ingurunea **eraldatzea** jarduera artistiko irekien bitartez, antzerki-tailerrak, musika, arte plastikoak, dantza, eta horrelakoak baliatuz eta gizarte-eraldaketako agente eta sormenaren sustatzaile izango den hezitzaile baten laguntzarekin.



- **Inguruneari irekia:** ikastetxeko eta ingurune lokal nahiz globaleko pertsona eta agenteen bizi-konexiotik heztea, errealitateak eta esperientziak elkarri konektatuz, enpatia eta aldaketaren bidean inplikatzeko beharra sustatuz.
- **Malgua:** aldaketari eta prozesuari egokitzeko gai den metodologia, ikasleei malguak izaten eta ikaskuntzan zehar eraldatzen laguntzen diena.
- **Originaltasuna:** lehendik ezagunak diren errealitateei buruz galdera berriak planteatzea, erantzun berriak, soluzio berriak, egiteko eta jarduteko modu berriak lortu ahal izateko. Sormena garatzen erakusten die horrek ikasleei.



<http://didacticarte.weebly.com/5-arte-comunitario-modelo-de-participacioacuten-social-a-traveacutes-del-arte.html>  
<http://www.utp.edu.co/~chumanas/revistas/revistas/rev29/aguirre.htm>

**Artea ikasteko bitarteko** gisa baliatzea ere oinarizko zutabea da gazteei ekintzarako prestatzeko prozesuen laguntzeko. Hezkuntza kognizioa baino gehiago da, eta arteak aukera ematen du emozioa eta afekzioa lantzeko. Artea erabiltzeak erakutsi du baliabide egokia dela pertsonen eta gizartearen igurikimenak eta premiak asetzeko (Eisner, 1995) eta ahalmen handia duela sentikortasuna esnarazteko, hazkunde pertsonala sustatzeko, pertsonaren gaitasun kritikoa garatzeko, autoestimua areagotzeko edo bakoitzak lantzen duen artean trebetasun teknikoak eskuratzeko (Lancaster, 1990).

## 9. Pedagogia eraldatzailea

Victoria Subiranaren metodoaren ardatza pertsonaren garapena eta heldutasuna mentala da, haurtzarotik hasita, filosofia pedagogikoan oinarrituta, gizakiaren buruaren funtzionamendua aztertzea eta ezagutzera dedikatzen da, oreka eta heldutasun mentala mantendu ahal izateko.



Lehen haurtzarotik hasten da lanean, munduko edozein tokitako edozein pertsonari aplikatzeko modukoa izan nahi du, eta pertsonaren eta edozein kolektiboren garapen harmonikoa bilatzen du.



• **Heldutasun mentala:** gizaki guztiek eskuratu beharreko ikasketa, edozein pertsonari, edozein esparrutan eta edozein lekutan aplikatu dakiokkeen ikasteko metodoa. Leku desberdinetan dauden ikasleekin aldi berean lan egiteko aukera ematen du.

• **Curriculum-plana:** pedagogia eraldatzaileak beste curriculum-plan bat behar du, tradizionalarekin paraleloa. Horrela, ikasleek barneratu ahal izango dituzte beren sentimenduak balio positibo bihurtzeko teknikak, esate baterako, egoen-trismotik enpatiara aldatzeko.

• **Identifikatzea, barneratzea, eraldatzeko:** horiek dira metodologiaren oinarizko printzipioak. Lehenengoarekin, ikaslea jabetzen da ikasten ari denaz, jarraitzen ari den prozesuaz, bigarren urratsean ezagutzak eta jarrerak bereganatzen ditu, eta hori ezinbestekoa da hirugarren urratsera iristeko eta, bere baitatik abiatuta, ingurunea eta injustizia-egoerak eraldatzeko eta kanbiantzeko.



[http://eduqual\\_web.pangea.org/wordpress/?page\\_id=12381](http://eduqual_web.pangea.org/wordpress/?page_id=12381)

<http://lilimafe.blogspot.com.es/2012/10/pedagogia-transformadora.html>

**Pedagogoa eraldatzaileak** buruaren harmonia eta heldutasuna garatzen laguntzen duten abileziei ematen die protagonismoa. Metodo honek ikasleak buru osatuagoa lortzen du, eta horrek bermatuko du gai dela ikasteko azturak eta disziplinak berrenantzeko, gatazkak ebazteko, egonkortasun emozionala izateko, familian eta gizartean harreman ona izateko eta, azken batean, pertsona zoriontsuagoa izateko.

## 10. gizartean eragiteko metodologia

Metodologia hau ibilbide konkretu bihurtu da, gida moduko urrats-sail bat eskaintzeko beren errealitatea aldatu nahi duten pertsona edo taldeei, parte-hartzeari eta eraginari buruzko jarduerak, ideiak eta bestelako esperientziak ezagutarazteko.



Parte hartzen duen taldeak edo pertsonak, inguruko errealitatean dauden premiak detektatzeko prozesu bat burutuko dute, gero errealitate horren parte diren kolektibo guztien garapen sozialean oinarrituta eragiteko ekintza bat antolatu ahal izateko eta gizartean parte hartzeko eta eraldatzeko kezka bera duten beste talde batzuen jarraibide eta eredu bilakatzeko.



• **Garapen soziala:** metodologiaren xede nagusia da tratatzen duen taldearen edo ikasleen ingurunekeo garapen soziala lortzea: nolako garapen soziala lortu nahi den definitzea proposatzen du, eta, definizio horretatik abiatuta, akzioa zentratzea garapen horretara heltzeko gai zehatz batean. Kopenhageko Gizarte Garapenari buruzko Goi-bileran (1995) esan zen bezala, kontzeptu honen bidez ikasleak ohartuko dira emakumearen parte-hartzerik gabe ezinezkoa dela garapen sozial eta ekonomiko jasangarria lortzea, eta emakumeen eta gizonezkoen berdintasunera iristea lehentasunezkoa dela nazioarteko komunitatearentzat.

• **Informazioa eskuratzea:** informazioa baliabide funtsezko eta ezinbestekoa da errealitatea ezagutzeko eta nola alda litekeen ikusteko. Metodologia honek informazioa eskuratzea planteatzen du esparru edo gai espezifiko batzuetan lortzea bereziki zaila denean, eta hori erronka bikoitza izaten da ikasleentzat: ahalegin handiagoa egitea datu jakin batzuk eskuratu ahal izateko, eta herritar gisa datu publikoak eskuratzeko duten eskubidea ezagutzea.



- **Eragina ete segimendua:** informazioa bilatzeko prozesua osatzeko, eragiteko ekintza bat prestatuko da, zabalkundea emango zaio eta aldatzeko proposamenari segimendua egingo zaio etorkizunean. Ekintza talde-lanean garatuko dute ikasleek, taldean hartuko dituzte ekintzaren estrategiari, helburuko publikoari eta diseinuari buruzko erabakiak. Ekintza burututakoan, garrantzitsua izango da prozesu osoari zabalkundea ematea eta segimendua egitea, espero ziren aldaketak kontrolatzeko (aldaketa horiek gertatu diren, denboran zehar mantendu diren, etab.).



[www.tomalosdatos.alboan.org](http://www.tomalosdatos.alboan.org) y <http://www.alboan.org/info-accion>  
<http://www.utp.edu.co/~chumanas/revistas/revistas/rev29/aguirre.htm>

“Hartu datuak” (ALBOAN, 2010), gizartean eragiteko metodologia, material lagungarria da tokiko esparrutik abiatuta erreallitatea eraldatzen lagundu ahal izateko beharrezkoak diren egitura, baliabideak, erreferentziak eta estrategiak bilatzen dituzten talde antolatuentzat. Proposamen hau mugimendu zabalago baten barruan sartzen da, Social Watch sarean. Pobreziaren kontrako eta genero-berdintasunaren aldeko politikak defendatzen dituzten nazioarteko oinarriko organizazioen sare bat da. Erreferentziako marko horretatik abiatuta, inguru hurbileko garapen sozialean lagundu daiteke eta baita beste ingurune edo erreallitate batzuetako garapenean ere.

*“Herzteia norberaren burua ezagutzeko, ulertzeko eta baloratzen laguntzea da, talentu guztiak beren osotasunean garatu ahal izateko eta gainerako pertsonekin bizitzeko dugun misioa gauzatu ahal izateko. Hori da jabetzaren zentzua: ikasleak gaitzea beren buruaren jabe izan daitezen, gizartea eraldatzeko konpromisoa hartzeko gai izan daitezen.”*

*(Federación Internacional de Fe y Alegría, 2011)*

## 11. Design FOR Change.

Gazteei mundua aldatzeko dituzten ideiak praktikan jartzeko aukera eskaintzen die nazioarteko mugimendu honek, prozesua ingurune hurbila eraldatetik hasita. Espainian “Yo Diseño el Cambio” (YoDC) esaten zaio metodologia honi.



Ikasleen, neska nahiz mutilen, parte-hartzea sustatzea, aldaketaren protagonista izateko behar dituzten tresnak eskuratzeko lagunduz. Irakaslearen figura laguntzailearena da, prozesuan zehar taldeari lagun egingo diona lideratzen eta motibatzen, ikasleak izan daitezten aldatzeko eta jarduteko proposamenak ikertzen, ezagutzen, deskubritzen, sortzen eta asmatzen dituztenak.



• **Lau urratseko prozesua:** lau fasetan burutuko da prozesua. Hauek dira faseak: **sentitu** (inguruneari begiratzeko eta zentzumenen bidez deskubritzeko garaia da), **imajinatu** (aurreko fasean aurkitutako edo planteatutako problematzako konponbide posibleak pentsatzeko garaia), **ekin** (teoriatik praktikara pasatzeko, ekintzak planifikatzeko eta martxan jartzeko garaia), **partekatu** (prozesua eta lorpenak partekatzeko garaia da, funtsezkoa da eskola inguruneari, familiari, auzoari irekita egotea eta egiten duen lana ezagutzera ematea). Gainera, bosgarren fase bat lantzea ere gomendatzen da: **hausnartu**, bizi izandako prozesua ebaluatzeko, nola lan egin den aztertzeko eta, aurrera begira, beste prozesu batzuetarako hobekuntzak pentsatzeko.


• **Ikasleak protagonista:** neska-mutilak izango dira arduradunak, berak arduratuko dira proiektua martxan jartzeaz, arazoak analizatzeaz, konponbideak planteatzeaz eta martxan jartzeaz. Hezitzailea taldearen laguntzailea izango da, ikasleak gidatuko ditu eta proposamena aurrera eramateko behar dituzten baliabideak emango dizkie.



<http://www.dfcworld.com/> y <http://www.dfcworld.com/dfc/spain/>

Kiran Bir Sethi da Design For Change metodologiaren sortzailea. Indian, Ahmedabad-en, Riverside School izeneko eskola batean sortu zen mugimendu global bat da.

Xedea proiektu sinpleak egitea da, ikasleek detektatutako premietatik abiatuta, emaitza hurbilekoa ete erreala izango duten proiektuak. Era horretako proiektuen bidez hainbat kompetentzia garatzen dira ikasleengan: pentsamendu kritikoa, sormena, talde-lana, komunikazioa eta hausnarketa, eta ingurunea kanbiatzeko eta eraldatzeko prozesuan partaide izateko duten gaitasuna hobetzen da. Gainera, ikasleen motibaziotik abiatuta lan egiten da, argi baitaude une orotan zein den egiten ari diren lanaren helburua, publikoa, problematika eta balioa.



## 12 Konpromisoa hartzeko prozesuak.

Erreferentzia-markoa Federación Internacional de Fe y Alegría federazioaren hezkuntza ez-formalaren eta sustapen sozialaren programa da (Educación no formal y Promoción social). Programa horretan ematen den definizioaren arabera, sustapena soziala da “pertsonak eta komunitateek gizartea eraldatzen eta mundu justuago, parte-hartzaileago, jasangarriago eta solidarioago eraikitzen laguntzeko duten potentzialitatea garatzeko xedearekin egiten den ekintza kolektiboa” (Fe y Alegría, 2009)



Pertsonen eta komunitateen baldintza ekonomiko, sozial, kultural eta politikoen kalitatea hobetzeko lan egitea, parte hartzen duen taldearen konpromisoa sendotzeko eta indartzeko prozesu baten bidez.



• **Sentsibilizazioa:** zentzumenak errealitatearekin lotzen dituen giza eta gizarte-prozesua, nahitaezkoa da historian presente egotea, jendearentzako eta jendearen duintasunerako diseinatzeko, jendea baita garrantzitsua gizartearen eraldaketan.

• **Kontzientzazioa:** hausnarketa moduan ulertua, ekintza konkretuetara bideratua, aldaketa lortzeko taldeko pertsona guztiengan eta inguruko errealitatean.

• **Jabekuntza:** ezinbestekoa da taldea osatzen duten ikasleekin lan egitea beren buruaren jabe izan daitezen, taldea gai izan dadin zer eraldatu nahi duen erabakitzeko eta helburu hori lortzeko lan egin dezan.


• **Antolamendua:** hori da gakoa taldean, ekipoa, lan egiteko. Antolatu egin behar da errealitatea eraldatzeko eta kanbiatezeko. Ekintzak egituratua izan behar du, zereginak taldeko kideen artean banatu behar dira, gauzak ondo egingo badira, eta arrakasta lortu nahi bada.



<http://www.feyalegria.org/es>

<http://www.feyalegria.org/es/biblioteca/publicaciones-acci%C3%B3n-p%C3%BAblica/marco-referencial-del-programa-educaci%C3%B3n-no-formal-promoci%C3%B3n-social>

Taldeko prozesu batean parte hartzeak, hemen azaltzen den bezalako prozesu batean, aldaketarako konpromisoa hartzera eramaten ditu neska-mutilak. Horretarako, nahitaezkoa da parte-hartzea etengabekoa eta prestatuta izatea. Ondoko irudian ikusten dira ikasleek pasatzen dituzten etapak sentsibilizatzen direnetik **“Konpromisorako prozesua”**n mobilizatzen diren arte.



Metodologia, pedagogia eta irakasteko proposamen horiek denak baliagarriak izango zaizkizu jorratu beharreko bideak erakusteko eta zure taldeari lagun egiteko lanaren oinarriak ezartzeko. Teorien pintzelkadak baino ez dira, sakonago garatu beharrekoak, eta zure aldetik hobeto ezagutzera animatzen zaitugu. Gure baliabide-zentro birtualean ([www.centroderecursos.alboan.org/eu](http://www.centroderecursos.alboan.org/eu)) gai honi buruzko erreferentziak aurkituko dituzu eta ALBOANen materialei buruzko aholkularitza ere emango dizugu, gurekin harremanetan jartzen bazara Bilbo, Donostia, Gasteiz edo Iruñeko egoitzetan.





### 3. ERREZETAK



Hasierako dinamika batzuk aurkeztuko dizkizugu orain, taldean konfiantza-giroa sortzen laguntzeko, eta, jarraian, lagun egiten diozun taldearekin egin ditzakezun formazioko proposamen batzuk, bloketan antolatuta. Errezeten puntua amaitzeko, ebaluazioari buruzko bloke bat eta ekintzei zabalkundea emateko bloke bat gehituko ditugu.

Bloke bakoitza aurkezpen labur batekin hasten da, lantzen den gaiaren eta lortu nahi diren helburuen sarrera gisa, eta gero ikasleekin egiteko jarduerak azaltzen dira.

Gure proposamena irekia da, zure taldeari ongien egokitzen zaizkion jarduerak aukeratu ahal izan ditzazun: alde zuzeneko formazioa, denbora, baliabideak, etab. Jarduera guztiak 12 eta 18 urte bitarteko neska-mutilentzat pentsatuak dira, eta hezitzaileak etapa bakoitzean erraz egokitzeko modukoak.

Batxilergoko ikasleekin lan egiten baduzu, prozesua parte-hartzaileagoa izan dadin, ikasleei proposa diezaiekezu beren artean erabaki dezatela zein gairi buruzko formazioa jaso nahi duten, edo anima ditzakezu zuk emandako erreferentzietatik abiatuta formazioen bat antola dezaten.

*Ez ahaztu! Aukera guztiak dira onak eta posibleak, eta jarduera eta baliabide gehiago nahi badituzu, gure herkuntzako webgunean aurkituko dituzu:*  
[www.educacion.alboan.org/leu](http://www.educacion.alboan.org/leu).



gaia



denbora



materialak



garapena



adibidea

*"Mundu honetako miseria eta gairi-uler-tuen lautik hiru berehala bukatuko lirateke, pertsonak beren aurkarien oinetakoak jantzi-ko balituzte, eta haien lekuan jarri-ko balira haien ikuspegi-a ulertze-ko". Mahatma Gandhi.*

# Aperituboa

Azkenik, gomendio bat programazioarekin hasi aurretik. Bidean orientatzen lagunduko dizuten galdera batzuk planteatzera animatzen zaitugu:

- Non kokatzen da proiektua ikas-tetxearen prestakuntza-eskaintzan? Proposamena curriculumean trans-bertsalizatzea, zuzendaritzako ekipoa, eskolako klastroa... hezkuntza-ko-munitatea inplikatzeko proiektua eza-gutu dezan.

- Nori eskaini nahi diot proiektu hau? Zenbat neska-mutil taldean, zein adinetakoak, inter-esak.

- Zenbat iraun dezake proiektu honek denboran zehar? Proiektua epe luzerako prozesu gisa aztertzea: datozen ikastur-teetan, urteetan... nola jarraituko duen

- Nor edo nortzuk izango dira taldeari lagun egitearen arduradunak? Badi-ra persona gehiago niri laguntzeko prest egongo direnak, nirekin koor-dina daitezkeenak eguneroko lanean eta/edo ekintza eta une jakinetan.

- Nola eta noiz ebaluatuko ditugu prozesua, formazioa, ekintzak? Ikas-leekin ebaluatzea taldean bertan, irakasle arduradunekin ebaluatzea, ikastetxean ebaluatzea

- Nolako ekintzak egingo dira: ikas-tetxean, ingurunean, beste organi-zazio, kolektibo batzuekin? Hainbat eratako ekintzak egiteko posibilita-teak baloratzea, gurekin lan egin de-zaketen inguruko beste organizazio batzuk ezagutzea.

- Zenbat denbora eman dezakete ikasleek proiektu honetan? Zein konpromiso hartu behar dute? Formazioan emateko ordu boluntarioak edo eskola-orduak, bolun-tariotzako ekintzetarako orduak, boluntario-lanean ematen duten denborari buruz har-tutako konpromisoak.

Aldaketaren parte izateko, lehenik eta behin inplikatu egin behar dut eta gauza bakoitzari behar duen den-bora eman behar diot. Aldaketaren parte izatea, edozertarako beti prest egotea da eta eskusio-egoeretan laguntzeko ahalik eta proposamen guztietan parte hartzea. (17 urte, boluntarioa eta Bilboko Jesuitak Indautxu

ikastetxeko batxilergoko 1. mailako ikaslea).

{ Taldean elkar ezagutzeko eta konfiantza-giropa sortzeko dinamikak. }

# 1. NOR gara?



Pertsonak aurkeztea, Pertsonen gaitasunak ezagutzea, Lankidetzeta, Talde-lana.



45 minutu



Palazzo Paletti (maileguan ematen da ALBOANen baliabide-zentroan [www.centroderecursos.alboan.org/eu](http://www.centroderecursos.alboan.org/eu))



Kooperazioko joko bat da. Partaideak zutabeak eraikitzen saiatuko dira Palazzo Paletti-ko taula eta maila desberdinetan, eta beste maila bat gehituko da partaideren bat azkeneko mailan blokeatuta geratzen den bakoitzean.

Jokoari beste eskakizun bat gehitzea proposatzen dugu: jokalaria bakoitzak, dadoak adierazten dion zutabea mugitzeaz gain, 4 eratako galderei erantzun diezaiela, kolorearen arabera:

- Gorria: bere burua aurkeztu, bere izena esan eta talde elkartu bat sortzen lagun dezakeen gaitasun pertsonal bat azaldu.
- Berdea: taldean parte hartzera bultzatu duen arrazoi bat azaldu.
- Urdina: taldean parte hartzean planteatu duen erronka bat, zailtasun bat, azaldu.
- Horia: taldean parte hartzearekin errealitatea aldatzen nola lagun dezaketen azaldu.

Palazzo Paletti eraikitzean, dadoa bota-ahala kolore bakoitzaren arabera eman dituzten erantzunei buruz hausnartuko dugu, partaide bakoitzak taldeari egin diezaiokkeen ekarpenaren alderdi positiboak indartzeko. Talde-lanak eraikitzeko, gatazkak konpontzeko eta errealitatea eraldatzeko duen garrantzia baloratu eta aitortuko dugu.

# 2.

## ERORTZERA HOA



Laguntzeko gaitasuna, altruismoa.



10 minutu



Espazio irekia behar da, mugitu ahal izateko, hobe lurrean alfonbrak eta burkoak edo kuxinak badaude; liburu honetako ariketa da: Elkartzen duten jokoak, 2. Konfiantza eta zintzotasuna taldearen hasierako fasean. Vopel, Klaus W. (2009), maileguan ematen da ALBOANen baliabide-zentroan [www.centroderecursos.alboan.org/eu](http://www.centroderecursos.alboan.org/eu).



Aretoa oso handia bada, hobe da jokalekua mugatzea. Hamabi jokalarirentzako 15 eta 20 metro karratu bitartean beharko dira.

Aretoan ibiltzeko eskatuko diegu. Tarteka, seinalea ematen dugunean partaideei begietara begiratuta, partaideetako batek esango du: ai, erortzera noa! eta lurrera eroriko da. Taldekoek berehala erreakzionatu beharko dute eta erortzera doanarengana hurbildu, lurra jo eta minik har ez dezan. Taldekidea "salbatzen" denean, jokoak aurrera jarraituko du hurrengo seinalea eman arte, eta formula bera errepikatuko da behin eta berriz, taldean elkartasun- eta konfiantza-giroa sortuz.

# 3. Tren itsua



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa. Gatazkak konpontzea.



30 minutu



Bidaiarien begiak estaltzeko zapiak, jardueraren fitxa (Tren itsua, "Munduko hiritarrok", "Gatazkak konpontzea" blokea, [www.educacion.alboan.org/eu](http://www.educacion.alboan.org/eu) helbidean deskarga daiteke).



Makinista mutu batek nola gida ditzake bidaiari itsuak trenan talka egin gabe mugitzeko? Nolako estrategiak bururatzeko zaizkigu informazio hori transmititzeko? Eta nolako jarrerak behar ditugu arazoak saihesteko?

Talde handia talde txikiagotan banatuko da, talde bakoitzak tren bat eraikiko du, tren horretan makinista (ilarako azkenekoa) mutua izango da, ezingo du hitz egin, eta bidaiariak begiak estalita izango dituzte eta ezingo dute ikusi. Tren bakoitzak aretoan zehar mugitu beharko du, gainerako trenak jo gabe, makinistak emandako jarraibideekin. Makinista mutua izango denez, seinaleak erabiliko ditu, eskuarekin zapladak emango dizkio sorbaldan aurrean duen lagunari, hark informazio hori pasatuko dio bere aurrean duenari, eta horrela ilarako lehenengoarengana iritsi arte.

- Seinaleak:
- *Aurrera egiten hasteko: zaplada bat bi sorbaldetan aldi berean.*
  - *Eskuinera biratzeko: 2 zaplada eskuineko sorbaldan.*
  - *Ezkerreko biratzeko: 2 zaplada ezkerreko sorbaldan.*
  - *Atzera egiteko: 2 zaplada bi sorbaldetan aldi berean. .*

Jokoa amaitutakoan, hausnarketa egingo da taldearen elkarbizitzarentzat konfiantzak eta komunikazioak duten garrantziak, eta, gauzak ondo egiteko, behar den denbora hartzeak eta azkarregi ez ibiltzeak duen garrantziak.

# 4. Gure taldea



Identitatea, taldea, elkartasuna, sormena, ideiak sortzea.



45 minutu.



Orri bat, boligrafo bat, baliabide-maleta (era askotako hainbat objektu, esate baterako, jostailu txikiak, txapak, sukaldeko elementuak, papertegikoak, denak balio du sormena lantzeko). Taldeko partaideak adina objektu eduki behar dira; [www.neuronilla.com](http://www.neuronilla.com) webgunekoaren antzeko ariketa batzuetan oinarritutako jarduera



Hasteko, sortzeko prestatuko gara. Horretarako, funtsezkoa da gure gorputza nola mugitzen den eta une horretan nola dagoen jakitea. Gorputzaren mugimenduen bidez sustatzen da sormena, mugimendu original eta propioen bidez, ohiko eruedetatik aldentuz, eta mugimendu horiekin gorputzaren atal desberdinak integratzea lortu behar da. Gure gorputza prestatzeko, ariketa hau egitera animatuko dugu taldea: aretoan zehar banatuko dira, ibiltzen hasiko dira, eta beste taldekide batekin gurutzatzen diren bakoitzean, elkar agurtuko dute. Agurtzeko modua, taldearen la-guntzaileak tarteka emango dien kontsigna bat izango da, aldez aurretik ezarria:



Lehenengo agurra: beldurtia, aurpegira begiratu gabe, izututa.



Bigarren agurra: errezelo apur batekin, baina kontaktu fisiko txiki batekin.



Hirugarren agurra: topo egin dugunari zerbait saldu nahi izango bagenio bezala.



Laugarren agurra: asko estimatzen duzun pertsona bat, aspaldian ikusi ez duzuna, izango balitz bezala.



Azkeneko agurra egin ondoren, kontsignaren arabera gure gorputzak hartu dituen posturei buruz hausnartuko dugu. Taldea animatuko dugu azkeneko agurrarekin gertatzera, hurbileko jarrera irekiarekin, ideien fluxua bideratzen duen eta taldean konfiantza sortzen duen horrekin. Hori da guk behar dugun jarrera.

Ideiak sortzeko prestatu ondoren, ariketa honen bigarren urratsa egingo dugu. Galdera bat planteatuko diegu: Nola izango dugu izena? Zein izango da talde gisa identifikatuko gaituen izena?

Izen horretara heltzeko, honela lagunduko diegu neska-mutilei: baliabide-maleta aretoaren erdian jarriko dugu, orri bana eta boligrafo bana har ditzatela esango diegu, eta gero azalduko diegu altxatu egin behar dutela, maletako objektu bat hartu, berriro eseri eta 4 minutuz pentsatu, objektu horrek izan ditzakeen erabileretatik zeintzuk izan litezkeen egokiak planteatu dugun galderari erantzuteko. Garrantzitsua da taldea animatzea ahalik eta ideia gehien idatz ditzaten, oso eroak direla iruditu arren, hortik aterako delako azkenean izena.

Denbora hori pasatutakoan, 4 edo 5 taldetan elkartuko ditugu partaideak. Talde bakoitzean, taldekide bakoitzak ezkerrean duenari emango dio bere ideien orria. Irakurri ondoren, denen artean komentatuko dituzte. Lehenengo, irakurri egingo dituzte, berdinik edo antzekorik dagoen ikusteko, idatzi egingo dituzte taldeka jartzeko, eta azkenean 3 hautatuko dituzte.

Kartoi meheak paretan jarriko ditugu eta koloretako eranskailuak banatuko dizkiegu. Partaide bakoitzak 3 izango ditu. Eranskailu horiek botoak izango dira. Banaka altxatuko dira proposatutako izen guztiak irakurtzeko eta botoa emango dute, gehien gustatzen zaien ideian eranskailuak itsatsiz. Azkenik, eranskailu gehien dituen ideia izango da irabazlea: horra gure taldearen izena!



Adibidez: nire objektua igeri egiteko txano bat bada, erantzun posible bat da txanoa buruan janzten dela pentsatzea eta buruak jokoan ematen duela: buruz ikastea, buruz buru aritzea, buru izatea, buruhandia, burugogorra, buruan izatea, burutsua izatea edo burujabea... Hortik abiatuta proposa nezake taldearen izena: **“Partaidetza buruan”**.

# Leheengo platerrak

{ Hegoaldeko ERrealitatearen Blokea }

Bloke honetan Hegoaldeko herrialdeek bizi duten errealitatea erakusten duten jarduerak aurkeztuko ditugu, injustizia horien arrazoiak eta Iparraldeko herrialdeek (eta ikasleek) egoera horrekin duten harremana azalduz.

Hegoaldeko errealitatea ezagutzera emateko, emakumeen egoera analizatuko dugu eta, halaber, errefuxiatuen errealitatea, hezkuntzaren egoera, egunero milioika pertsonak erabiltzen dituzten baliabide naturalen jatorria.

Helburua ikasleak sentsibilizatzea da Hegoaldeko herrialdeetan bizi diren pertsonen egoerari buruz, pertsona horiek beren eskubideak defendatzeko egiten dituzten borrokak, lanak eta ahaleginak azaltzea eta errealitate hori erlazionatzea taldeko gazteek egoera aldatzen eta eraldatzen laguntzeko eta pertsona guztientzako mundu justuago bat lortzeko duten erantzukizunarekin.



Ongi sentitzen naizelako nire denbora eta irribarrea ematen, neska-mutikoekin partekatzen. Eta horrek sentiarazten dit nik ere nire harri-koskorra ekarri dudala gizartera. (17 urte, boluntarioa eta Gasteizko EGIBIDE Fundación Diocesanas – Jesús Obrero Fundazioko ikaslea)

# 1. Etorkizun- aukerak, ametsak partekatzea



Errefuxiatuak, Haurrak, Afrika.



Ordu eta erdi.



Orriak (oraina, iragana, etorkizuna), koloretako margoak, Etorkizun-aukerak argitalpeneko marrazkiak eta testuak (ALBOANen egoitzetan doan eta deskargatzeko bertsioa [www.educacion.alboan.org/eu](http://www.educacion.alboan.org/eu) webgunean.)



Taldeari lana aurkeztuko diogu eta errefuxiatuen errealitateari buruz arituko direla azalduko diegu. “Etorkizun-aukerak” argitalpenaz hitz egin dezakezu, nola egin zen kontatu, Liberiako errefuxiatu-eremuko pertsonen errealitateaz mintzatu.

Liberiako proiektuan parte hartu zuten neska-mutiek egindako testuak eta marrazkiak banatuko ditugu. Binaka jarrita, tokatu zaizkien testuak eta marrazkiak antolatuko dituzte taldeko neska-mutiek, eta hiru garaitan sailkatuko dituzte, beren ustez marrazkiak adierazten duen unearen arabera:

**Orain** (marrazkia egin duen haurra orain bizi izaten ari da errealitate hori errefuxiatu-eremuan)

**Iraganean** (haurrak marraztu duen errealitatea herrixkan bizi zenekoa edo gerra-denborakoa da, errefuxiatu-eremura joan aurrekoa)

**Etorkizunean** (marrazkia egin duen haurrak etorkizunerako duen ametsa).

Binaka lanean aritu ondoren, talde handian elkartuko dira, lekukotzak eta marrazkiak nola sailkatu dituzten eta errealitate hori ezagutzean nola sentitu diren azaltzeko eta komentatzeko.

Amaitzeko, talde batekoen eta besteakoen ametsi buruz hausnartuko dute, nahiak oso antzekoak, bi errealitateetan partekatuak, direla oharrezko. Saioa ixteko, pertsona guztien nahiak betetzea lortzen saiatzeko zer egin behar dugun hausnar genezake.

**Arthur Cooper (3º)**

Nire bizitzaren historia da hona etorri aurretik gerra hasita zegoela. Jende asko goseak hiltzen zuen, eta errepidean jendea elkarren kontra borrokan zebilen. Nire senitarteko asko gerran hil ziren. Soldaduek gerrako etsaiak hiltzen zituzten eta Gobernuak denen kontra egiten zuen borroka.

**Tamue Mayayeh (3º)**

Hau nire etxea da. Barneko desplazatuentzako Salala 2 eskolara joaten naiz.

Lofa konderritik nator, Vonjama hiritik. Etxean amak arroza egiten zigun ogiarekin. Aitak lurra lantzen zuen guretzat. Nire irakaslearen izena Don Gbouam da. Nire ama, aita, anaiak, ahizpa eta ni desplazatuentzako eremuan bizi gara. SJR eskolara joaten gara, denok gaude Salalan desplazatuta. Munduko Elikadura Programak laguntzen digu Salalako barneko desplazatuentzako eremuan.

Etxera itzuli nahi dugu. Nekatuta gaude desplazatuak izateaz.

**Harris Flomo (2º)**

Gure etxera eramango gaituzte eta eskolara joango gara eta nik lurra landuko dut niretzat eta nire familiarientzat. Aitak eta amak eskolara bidaliko naute. Nekazaria izango naiz amarentzat eta aitarentzat. Jango ditugun animaliak hilko ditut. Lurra landuko dut gure jendearentzat Jesukristo gure jaunaren izenean, berriro palmondoa haziko dut amarentzat. Amarekin eta aitarekin biziko naiz. Handitan medikua izango naiz eta nire familiari lagunduko diot.

TIKSY 2011/12/12/13/14/15/16/17/18/19/20/21/22/23/24/25/26/27/28/29/30/31/32/33/34/35/36/37/38/39/40/41/42/43/44/45/46/47/48/49/50/51/52/53/54/55/56/57/58/59/60/61/62/63/64/65/66/67/68/69/70/71/72/73/74/75/76/77/78/79/80/81/82/83/84/85/86/87/88/89/90/91/92/93/94/95/96/97/98/99/100

**Anonimoa**

Etorkizunerako esperantza dut, badakidalako baldintzak ez direla beti berdinak izango. Beraz, nire egoera aldatu egingo da etorkizunean. Ikasketak egiteko laguntza izango dut. Gure Jaunaren gus-tuko bizimodua egingo dut. Horregatik, ez naiz kezkatzen, ez dakidalako biharko egunak zer ekarriko duen. Bizia dagoen artean esperantza dago.

# 2. Binta- Ren Ideia Bikaina



Hegoaldeko errealitatea, Afrika, Hezkuntza, Parte-hartzea, Emakumea.



Ordu 1 eta 30 minutu.



Lan pertsonalerako fitxak, arkatzak edo boligrafoak eta “Binta y la gran idea” film laburra (Javier Fesser-ek zuzendua eta UNICEFen “En el mundo a cada rato” DVDan sartua, maileguan [www.alboan.org/centroderecursos](http://www.alboan.org/centroderecursos) webgunean).



Filma proiektatu aurretik, gaia eta jarduera testuinguruan kokatuko ditugu. Tituluak zer iradokitzen dien galde diezaiekegu, edo nola ikusten duten Afrikako errealitatea, etab.


“Binta y la gran idea” film laburra ikusi.

Taldekoak binaka jarriko ditugu, eta ondoko taula osatzeko esango diegu filmean erakusten diren injustizia-egoeren kasuetan. Osatzen dutenean, denon artean eztabaidatuko dugu.

Amaitzeko, hausnarketa egingo dugu talde handian filmean esaten den esaldi honetatik abiatuta:

“Aitak esaten du txoriengandik ikasi behar dugula. Oso argiak dira txoriak, iparraldeko onena eta hegoaldeko onena hartzen dute.” Binta

Lehenengo platerrak



| Injustizia-esparrua / Kasuak     | 1. kasua | 2. kasua | 3. kasua |
|----------------------------------|----------|----------|----------|
| Hezkuntza                        |          |          |          |
| Merkataritzako harremanak        |          |          |          |
| Emakumeak                        |          |          |          |
| Osasuna, sanitatea               |          |          |          |
| Ipar/Hego harremanak             |          |          |          |
| Heria/Auzoa/Hiria<br>Komunitatea |          |          |          |
| Haurrak                          |          |          |          |



# 3. Motxilan



Errefuxiatuak, Hegoaldeko errealitatea.



45 minutu.



“Eskola bat kanpin-denda batean” kanpainako motxilaren fotokopia, motibazio-testua, eta proposamen didaktikoaren dosierra ([www.educacion.alboan.org/eu](http://www.educacion.alboan.org/eu) webgunean deskarga dezakezu).



Taldearekin egingo den jarduera testuinguruan kokatu, eta era honetako galderak egin: Nola sentituko ginateteke, bat-batean etxetik, herritik, gure herrialdetik ihes egin beharko bagenu? Zer irudituko litzaizueke nahitaez zuekin eraman beharrekoa? Ondoren, partaideei eskatuko diezu jar daitezela, munduko leku askotan bizia salbatzeko etxetik ihes egin beharrean dauden pertsona horien lekuan; testu hau irakur dezakezu lagungarri gisa:

*Zure herrian borroka ez du etenik, arriskutik ihes egin behar duzu, dena utzi eta alde egin: etxea, adiskideak, zure gauza guztiak, eskola... Bost minutu dituzu etxetik alde egiteko eta zure herrialdetik irteeteko. Zer sartuko zenuke motxilan, iakinik kilometro askoan bizkarrean eraman beharko duzula? Zure familiak bizirik jarraitzea zure erabakiari lotuta egon daiteke, horregatik, baliagarrienak iruditzen zaizkizun gauzak aukeratu behar dituzu, baina 10 gauza bakarrik eraman ditzakezu.*

Motxilaren fotokopia banatuko duzu eta 5 minutu emango dizkiezu, bakoitzak bere zerrenda idatz dezan. Gogoraziko diezu idatzi dutena eta motxilan kabitzen dena bakarrik eraman ahal izango dutela. Denbora hori igarotakoan, binaka elkartuko dituzu eta 10 minutu izango dituzte zerrenda berregiteko, bien artean hitz eginda, eta bakoitzarentzat 5 gauza bakarrik utziko dituzte. Jarduera amaitzeko, talde handian bateratze-lana egingo dute, bakoitzak zer aukeratu duen komentatuko dute, zergatik aukeratu dituen gauza horiek, balio sentimentala duten, beharrezkoak diren... Ihes egin beharrean aurrean nola sentitu diren ere esan dezakete, eta anima ditzakegu pentsatzera nola bizi duten egoera hori gaur egun mundu guztian dauden milioika errefuxiatu eta desplazatuak.





# Globingo



Globalizazioa, Hegoaldeko errealitatea, Interkonexioa.



45 minutos.



GREIG, S., PIKE, G., SELBY, D. "Los derechos de la Tierra. Como si el planeta realmente importara" Editorial Popular, 1991. (39 eta 40 orr.) fitxaren fotokopia, boligrafoa, Peters mundu-mapa, eranskailuak, ariketa.



PGlobingo aurkeztuko dugu, gure herriko eguneroko bizitzan elementu globalez inguratuta gaudela erakusteko modu bat dela esanez.

Honela egiten da jokoak: neska-mutilei fotokopia bana ematen zaie laukiekin eta instrukzioekin. Ahal dituzten lauki guztiak bete beharko dituzte, gainerako partaideek emandako informazioarekin. Galdera bati erantzuten zaionean, laukian idatzi behar da informazio hori eman dion pertsonaren izena eta herrialdea. Pertsona horren izena behin bakarrik agertu ahal izango du orrian. Lauki-errenkada bat betetzen denean (horizontalean nahiz bertikalean), Globingo! oihukatu behar da. Une horretan jokoak gelditu egingo da, eta Globingo! esan duenak eranskailuekin markatu beharko ditu mapan orrian apuntatu dituen herrialdeak. Jokoak aurrera jarraituko du eta dinamika bera errepikatuko dugu taldekoek fitxak osatu arte eta mapa herrialdeak markatzeko eranskailuz beteta egon arte.

Jokoak amaitutakoan, hausnarketa egingo dugu talde handian, beste herrialde batzuekin ditugun konexioak komentatuko ditugu eta harremanak zein eratakoak diren aztertuko dugu: merkataritzakoak, pertsonalak, familiarak, ikasketa-kontuak, etab. Ariketa horrek ikasleei lagunduko die testuinguru globalean kokatzen eta, konexioak erakutsiz, gogoraraziko diegu nolako garrantzia duten gure ingurune hurbilean egin ditzakegun ekintza txikiek, aldaketa global bat egin ahal izateko.



**Aurkitu honelako pertsona bat:**

1. Beste herrialde batera, atzerrira, bidaiatu du
2. Beste herrialde bateko norbaiti idazten dio
3. Beste hizkuntza bat ikasten ari da
4. Familia du beste herrialde batean
5. Beste herrialde bateko turista bati lagundu dio
6. Beste herrialde bateko musika-talde bat gustatzen zaio
7. Beste herrialde batean egindako arropa darama
8. Beste herrialde bateko janaria gustatzen zaio
9. Beste herrialde bateko kirolariren baten izena daki
10. Marka atzerritarreko autoa du
11. Beste herrialde batean bizi izan den norbaitekin hitz egin du
12. Hizkuntza bat baino gehiago egiten den etxe batean bizi da
13. Beste herrialde bateko albistiren bat irakurri du egunkarian
14. Beste herrialde bati buruzko zerbaite ikasi du TBn orain dela gutxi
15. Beste herrialde batean egindako etxetresna elektrikoren bat du
16. Atzerrian jaiotako senitartekoren bat du.

|                             |                             |                             |                             |
|-----------------------------|-----------------------------|-----------------------------|-----------------------------|
| A.<br>Izena:<br>Herrialdea: | B.<br>Izena:<br>Herrialdea: | C.<br>Izena:<br>Herrialdea: | D.<br>Izena:<br>Herrialdea: |
| E.<br>Izena:<br>Herrialdea: | F.<br>Izena:<br>Herrialdea: | G.<br>Izena:<br>Herrialdea: | H.<br>Izena:<br>Herrialdea: |
| I.<br>Izena:<br>Herrialdea: | J.<br>Izena:<br>Herrialdea: | K.<br>Izena:<br>Herrialdea: | L.<br>Izena:<br>Herrialdea: |
| M.<br>Izena:<br>Herrialdea: | N.<br>Izena:<br>Herrialdea: | O.<br>Izena:<br>Herrialdea: | P.<br>Izena:<br>Herrialdea: |

## 5.

Milurteko  
Garapen  
Helburuen  
mandalak  
margotu.

Pobrezia, Desberdintasuna, Hegoaldeko errealitatea, Barnekotasuna, Hausnarketa pertsonala.



50 minutu.



Margoak, mandalen kopiak (ALBOANen egoitzetan eskura daitezke koadernoak eta pdf formatuan deskarga daitezke [www.educacion.alboan.org/eu](http://www.educacion.alboan.org/eu) webgunean)



Hasteko, testuinguruan kokatuko dugu Milurteko Garapen Helburuen egoera globala munduan. Garrantzitsua da taldea motibatzea jarduera hau egiteko, ondo atera dadin beharrezkoa delako ikasleak prest egotea beren sentimenduak adierazteko, margotzeko eta barruan duten alderdi emozionalari ateratzen uzteko.

Era honetako testuak erabil daitezke:

*"Aurrerapena herri guztietan berdina izan ez den arren, lorpen handiak egin dira munduko pobrezia-aren aurkako borrokan. 1990 eta 1999 artean, egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizi ziren pertsonen kopurua %30etik %23ra jaitsi zen. Asia eta Afrika iparraldeko herrialde gehienak muturreko pobrezia erdira murrizteko jomuga lortzeko bidean dira."*

ALBOANen Baliabide Zentroan ([www.centroderecursos.alboan.org/eu](http://www.centroderecursos.alboan.org/eu)) aurkituko duzu Milurteko Garapen Helburuei (MGH) buruzko informazio gehiago, dokumentazioa eta datuak.

Gaia aurkeztu ondoren, denbora bat emango dugu hausnartzeko, eta margoak eta mandalak banatuko ditugu aretoan zehar, ikasle bakoitzak gehien gustatzen zaion marrazkia hartu eta margo dezan.

Amaitzen dutenean, denon artean partekatuko dugu egindako lana eta margotzean piztu zaizkien sentimenduak adieraztera animatuko ditugu, beti planteatuz: "Zer egin dezaket nik?".



# 6. Gatazkarik gabeko teknologia



Egunero erabiltzen diren gauzen eta beste herrialde batzuen arteko erlazioa, produkzio-katea, Desberdintasuna, Hegoaldeko errealitatea.



90 minutu.



Kartoi meheak, errotuladoreak, PDF honetako irudiak: <http://bit.ly/1ew6QSE>, Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpainan sartutako hezkuntza-fitxa. (informazio gehiago: [www.tecnologia-libredeconflicto.org/eu](http://www.tecnologia-libredeconflicto.org/eu))



Taldea talde txikiagotan banatuko dugu eta talde bakoitzari argazkiak banatuko dizkiogu. Telefono mugikor batek "jaiotzen" denetik "hil" arte egiten duen bidea pentsa dezatela eskatuko diegu, gero kartoi meheetan jarri beharko dute eta azkenik talde handian azaldu. Bateratze-lana egiteko, galdera batzuk egingo ditugu:

- Konturatzen zineten zenbat pauso egiten diren mugikor bat fabrikatzeko?
- Uste duzue mugikorraren prezioan sartzen direla prozesu guztiaren kostuak?
- Ezagutzen zenituzten prozesuak eragiten dituen inpaktuak?
- Zertarako erabiltzen dugu mugikorra?
- Nola sentitzen zarete inpaktu horiek ezagututa?
- Zenbatean behin aldatzen dugu mugikorra?

Amaitzeko, esango diegu pentsa dezatela inpaktuetan, eta guk zer egin dezakegun inpaktu horiek ezabatzeko edo murrizteko behintzat. Kartoi mehe batean idatziko ditugu gure proposamenak, debatan ateratzen diren ideiekin.



## 7.

Munduko  
erlijioak.

Kulturartekotasuna, Errespetua, Munduko erlijioak.



60 minutu.

Osatzeko fitxa, kartoi mehea, errotuladoreak, Peters mundu-  
mapa, ALBOANen Munduko Hiritarrok proposamenerako  
Kulturartekotasuna Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza  
materialean oinarrituta: <http://www.educacion.alboan.org/eu>.

Esan talde bakoitzari egokitu zaion zonaldeko erlijio-mugi-  
menduei buruzko informazioa bilatzeko. Gero, egin deza-  
tela erlijio horietako bakoitzaren ezaugarri bereizgarrienen  
laburpena eta adieraz dezatela, taula batean, informazio  
guztia gainerako ikaskideei aurkezteko.

Jari fitxak mapan herrialde bakoitzari dagokion lekuan,  
mundu guztian dagoen erlijio-aniztasuna ikusteko.

Denen lana bateratu ondoren, debatea irekiko dugu,  
jarduera egin aurretik erlijio horiei buruz zer genekien  
eztabaidatzeko, gehiago jakiteko zer egin dezakegun eta  
zer dugun berdina pertsona guztiok, edozein erlijiotakoak  
izanda ere (justiziaren sena, ahulenenganako hurbiltasuna,  
hainbat erritu...).

Fitxa: Laburpen-taula.  
Munduko erlijioak.

Izena: \_\_\_\_\_

Jainkoa: \_\_\_\_\_

Jatorria: \_\_\_\_\_

Morala: \_\_\_\_\_

Errituak: \_\_\_\_\_

Zona geografikoak: \_\_\_\_\_

Datu interesgarri gehiago: \_\_\_\_\_

# 8.

Zuzeha ala okerra?  
Edota erlatiboak dira?



Desberdintasuna, Hegoaldeko errealitatea, India, Emakumea, Pobrezia.



50 minutu.



Indiako mapa, testuinguruan kokatzeko galderak, boligrafoak, adierazpen-taula fotokopiatua, informazio gehiago "Zure bizitza Indian" gida didaktikoan [www.educacion.alboan.org/eu/gunean](http://www.educacion.alboan.org/eu/gunean).



Hasteko, Indiako errealitatea testuinguruan kokatu dugu, horretarako, mapa hau eta galdera hauek erabil ditzakezu, taldea erantzuna ematen saia dadin denon artean herrialdea eta bertako errealitatea kokatzeko.

*Zer herrialde daude Indiarekin mugan?*

*Zer erlijio praktikatzen dituzte Indian?*

*Zer hizkuntza hitz egiten dira?*

*Zure ustez, zer lotura daude Indiako kulturaren eta gure kulturaren artean?*

*Ezagutzen duzu Indiako idazlerik?*

*Indiar jatorriko zer pertsonaia historiko edo ezagun ezagutzen dituzu?*

*Ezagutzen duzu herrialde horretako inor?*

*Eta Indiara bidaiatu duen inor?*

*Zer kontatu dizu?*

*Zer irudi duzu herrialde horretaz?*

*Nolakoa da paisaia?*

*Nola bizi da jendea?*

*Zertan jarduten dute?*

*Zer ohitura dituzte?*

*Azpimarratu Indiako zenbait ezaugarri.*



Taula fotokopiatu hau emango diogu taldekide bakoitzari. Galderei erantzungo diete, banaka, eta gero taldean partekatuko ditugu erantzunak. Zinta baten bidez lurra markatuko dugu: zintaren alde batera “zuzena” laukia irudikatuko dugu, beste aldera “okerra” eta zintaren gainean “erlatiboa”. Ikasleak, banan-banan, markatu duten laukiari dagokion lekuan jarriko dira. Adierazpen bakoitzean, duten iritzia partekatuko dute, arrazoiak eta argudioak azalduz.

|  | Zuzena | Okerra | Erlatiboa |
|--|--------|--------|-----------|
| India herrialde pobrea da.   |        |        |           |
| Emakumeek ez dute eskubiderik Indian.  |        |        |           |
| Indiako legediak ez ditu babesten herritar guztiak.  |        |        |           |
| Indiako haurrek ezin dute ikasi, lan egitera behartuta daudelako.                                    |        |        |           |
| Etorkizunean lanbide ona izateko balio du hezkuntzak.  |        |        |           |
| Kulturen arteko elkarbizitza baketsua izan da beti Indian.   |        |        |           |
| Adivasiak komunitateetan, herrixkaren buru den eta erabaki guztiak hartzen dituen pertsona bat dago. |        |        |           |
| Adivasiak oihanean bizi dira, modu iraunkorrean.   |        |        |           |
| Kasten sistema jada ez dago indarrean Indian.  |        |        |           |
| Adivasiak komunitateetan, ezkontzen direnean ohikoa da dotea.  |        |        |           |
| Adivasiak, batez ere, ehizari esker bizi dira.   |        |        |           |
| Warliarren artea kultura hinduaren parte da.   |        |        |           |
| Emakume adivasiak familia zaintzeaz arduratzen dira.   |        |        |           |

Laguntzaile gisa, zure lana debatea gidatzea izango da eta hausnarketa bideratzea taldea Indiako errealitatera hurbil dadin, eta errealitate hori eta beste batzuk eraldatzera bultzatuta senti dadin.

# 9. Tai Chi Chih



Barnekotasuna, Talde-sentimendua, Arte martziala.



30 minutu.



Tai Chi abestiak, musika-erreproduzigailua, leku lasaia eta zabala (barnean nahiz kanpoan).



Tai Chiren jatorria aurkeztuko dugu ("bizitzeko azkeneko modu handia, mugimenduaren bidez erakutsia" esan nahi du) arte martzial gisa eta jarduera azalduko dugu barnekotasun-jarduera gisa, pertsona bakoitza bere buruarekin eta ingurukoekin konektatzeko eta beste teknika eta kultura batzuk ezagutzeko bide gisa.

Taldea kokatuko dugu egin behar dugun jardueran. 30 minutuan zehar, taldea irakasle laguntzaileak gidatuko du Tai Chi Chih mugimenduak (Justin Stone-k sortuak) eta Tai Chi-ko mugimendu tradizionalagoak egiteko. Azalduko dugu jarduera honen helburua taldekoen jakintza dela, bakoitzak bere buruaren fluxua eta forma ezagutu eta jarrai ditzan eta gorputzean duen energia (chi) deskubri dezan.

Hemen aurkezten ditugu saioan egin daitezkeen mugimendu batzuk, mugimendu bakoitza 8 - 10 bat bider errepika daiteke.

Mugimenduak azaldukoan, musika jarriko dugu eta mugimenduak egingo ditugu, irakaslea gidari dela.



Jarduera honetan oso garrantzitsua da taldea aldez aurretik prestatzea. Era honetako ariketek burua eta gorputza integratzen laguntzen dute, eta emozioen bidez sentazioak lantzeko aukera ematen dute, bihotza erantsiz.

# MUGIMENDUAK

## 1. Kulunkaulkia

Zutik, zangoak zabalik sorbalden parean, eskuak alboetan. Altxatu orpoak eta aldi berean jaso eskuak, ahurra gora, bu-larraren pareraino. Eman buelta eskuei eta eramana behe-rantz orpoak jaitsi eta behatzak altxatzen dituzun bitartean, behatzen aldera kulunkatuz. Imajinatu zure oreka-zentroa sabelean dagoela, sabela lurrarekin lotzen duen zilbor-heste luze bat balitz bezala.

## 2. Argi-zirkulua.

Ezkerreko oina aurreratuta eta esku-ahurrak lurrera begira, egin argi-zirkulu bat hatzekin. Mugitu argi-zirkulua ordularia-ren orratzen aldera, energia emanez eta hartuz. Errepikatu eskuineko aldearekin, eskuak alderantziz mugituz, ordula-riaren orratzen kontra. Imajinatu energia ematen eta hartzen ari zarela.

## 3. Argi-globoa.

Ezkerreko oina aurreratuta, osatu argi-globo bat eskuen artean, sorbalden altueran, jolasean bezala, bota bola mundurantz eta itzuli eskuak bularrera. Errepikatu mugimendua hainbat aldiz.

## 4. Argi-dutxa.

Ezkerreko oina aurreratuta, mugitu eskuak zirkuluan gorantz, buruaren pareraino eta gero beherantz, argi-dutxa bat hartzen arituko bazina bezala. Gero, errepikatu eskuineko oina aurreratuta.

## 5. Eman eta hartu.

Ezkerreko oina aurreratuta, esku-ahurrak behera begira, pixka bat kurbatuta bularraren parean, egin bultza esku kurbatuei kanporantz, barneko tentsio, negatibotasun eta indarkeria guztia kanporatuz. Jarri eskuak gora begira eta ekarri berriz bularrera, bizitzaren ontasuna eta oparotasuna arnastuz. Errepikatu mugimendua eskuineko oinarekin.

## 6. Airean zehar hegan egin.

Ezkerreko oina aurreratuta, ezkerreko eskua jasota, ukon-doa tolestuta, eskua zabalik, eskuineko eskua gerriaren parean. Egin igerian edo hegan aire energia-emailean.

## 7. Hodeiak pasatzen.

Belaunak pixka bat doblatuta, oinak sorbalden parera zabal-duta. Mugitu besoak zirkuluan, begien altueran, eskuineko besoarekin hasita.

## 8. Eternitaterako leihoa.

Hartu denbora pixka bat bizitzako jardueretara itzuli aurretik. Ezkerreko oineko orpoa altxatuta eta eskuineko oineko orkatila-hezurrari begira, gurutzatu hatzak eta jaso eskuak begien altueraren azpira. Erlaxatu begirada, begiratu hori-zontera eskuen gainetik, enfokatu gabe. Sentitu gorputza-rekin, buruarekin eta espirituarekin bat zarela, gozatu bake-une hori, jabetu beti daramazula argia zure barnean.

## 9. Namaste agurra

Ariketak taldean egiten ditugunean, pertsona bakoitza agurtuz bukatuko dugu. Elkartu eskuak bularraren parean, errezatzen ariko bazina bezala, eta egin erreberentzia talde-kide bakoitzari, burua makurtuz agur gisa.



# Bigarren platerak

## { Iparraldeko Errealitatearen Blokea }

Bloke honetan aurkezten diren jardueren bidez gure hurbileko ingurunea aztertuko dugu. Beharrezkoa da ikasleek, taldeak, bizi diren lekua, eskolara joaten direna, gurasoek lan egiten dutena ezagutzea: historia, nortzuk bizi diren bertan, zein den jarduera ekonomiko nagusia, azken batean, nolakoa den eguneroko bizitza eta nolako premiak dauden beren herrian. Bigarren plater hauekin hurbileko errealitatea analizatuko dugu, errealitate globalarekin eta ikasleekin berekin dauden loturak ikusiz.

Helburua ingurune hurbila ezagutzea da, auzoko, herriko edo hiriko pertsonak zein egoeratan dauden jakitea, inguruko bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean inplikatzeko eta parte aktibo izateko sentsibiliza daitezten.

*“Bestelako mundu bat posible izateaz gainera, dagoeneko bidean dago.  
Beharbada gutako asko ez gara prest egongo ongiatorria emateko, baina egun  
lasai batean, adi-adi banago. bere arnasa entzun dezaket.”*

*Arundhati Roy*



## Papalagiak



Aniztasuna, Kulturartekotasuna, aurreiritziak.



45 minutu.



“Papalagiak” testua (JANAVAK gida didaktikoko jarduera: [www.educacion.alboan.org](http://www.educacion.alboan.org)), margoak (hatzez margotzekoak muralerako, errotuladoreak bakoitzaren marrazkiak egiteko...), paper handia edo folioak.



Hezitzaileak Papalagiak marrazteko eskatuko die ikasleei, testua irakurtzen dien bitartean, imajinatzen dituzten bezala. Bigarren aldiz irakur daiteke testua. Gero marrazkiak erakutsiko dituzte eta Papalagiei buruz, haien ohiturei buruz, mintzatuko dira, zergatik marraztu dituzten horrela eta zer egiten dutela iruditzen zaien. Debatearen ondoren, Papalagiei irudikatzen duten herriaren identitatea azalduko da eta aniztasunari, aurreiritziei, etabarri buruz eztabaidatuko da taldean.

*“Papalagien gorputza gerripekora eta abere-larruz erabat estalita dago. Japaki horiek hain hermetikoki estututa daude, ezin giza begiek eta eguzki-izpiak ezin baitituzte zeharkatu, hain estuki lotuta daudenez, gorputza zurbil koloreko bihurtzen zaie, eta itxura ahutua hartzen du, zuhaitz handiko baso batean hartzen ari den lore baten gisara. Oinen inguruan larru moldagarri eta senda bat lotzen dute. Eskuarki, larru leuna malgua izaten da, eta ondo egokitzen da oinaren formara, baina larru gogorra ez da egokitzen. Animalien larru lodiz eginda daude, animaliak labanaz larrutzen dituzte, larrua beratzen uzten dute, kolpatu eta eguzkitan edukitzen dute luzaroan, gogortu eta ontzen den arte.*

*Horrekin, papalagiek kanoa moduko bat eraikitzen dute albo altuekin, oinera moldatu ahal izateko bezain handia. Kanoa bat eskuineko oinarentzat eta beste bat ezkerrekoarentzat. . “Ontzi-”*

oin" triki horiek orkatilaren inguruan lotzen dira lokarri, eta kakoz, oina kapsula horren barruan edukitzeko, barraskiloa bere etxean bezalaxe. Papalagiek goizetik gauera eramaten dituzte larri horiek, baita bidaiatzera edo dantzara doazenean ere. Euri tropikaleko ekaitza-  
ren aurretik berain bero dagoenean ere badaramatzate.

Papalagiak pobreak dira, zoro moduan jarduten baitute gauzen bila. Gauzarik gabe, ezin dira inola ere bizirik. Dortoka baten eskolar objektu bat egin dutenean, ilea apaintzeko, azal bat egiten dute tresna horrentzat, eta azala gordetzeko kaxa bat egiten dute, kaxa handiagoa.

Papalagiek sukaldean aritzeko dituzten txabola horietako batera sartzen bazara, hainbeste janontzi ikusiko dituzu, non ezinezkoa baita gurziak aldi berean erabiltzea.

Hurziok dakizue, anai-arrebok, nire begiekin ikusitako egia kontatzen dudala, ezer gehitu edo asmatu gabe."

Testu honetatik egokitua: Colectivo AMANI (1994). Educación intercultural. Madrid: Ed. Popular. S. A.

IRAKURRI ondoren  
egiteko  
galderak:

Nolakoak dira Papalagiak?  
Zer iruditzen zaizkizue haien ohiturak?  
Gustatuko litzaizueke han bizitzea?

Zergatik?  
Nor dira?  
Zein herri?

Europako emakume eta gizonetakoak dira, Samoako Tuiaivi buruzagiak Tiuean, Hego Pazifikokoan, 1929  
inguruan emandako deskripzioa, Europara bidala bat egin ondoren.  
Orain badakizu nor diren: Zure ikuspegia aldatu da? Nola sentitzen zara?

## 2.

Mapa  
hiztunak

Tokiko errealitatea, talde-antolaketa.



60 minutuko 2 saio.



Eragiteko metodologia, Hartu datuak.



Hasteko, mapa hiztuna zer den definitzen da: herri batean bizi diren pertsonen dituzten pertzepzio desberdinak ezagutzeko balio duen mapa.

Taldeak bere auzo, herri edo hiriko mapa hiztuna egingo du. Horretarako, talde txikiagotan banatuko dira eta 45 minutuz paseatzera irtengo dira, inguruan begiratzera, jendearekin hitz egitera, etab. Dauden premiei erreparatu behar diete, inguruan hobetu beharrean dauden gauzei. Talde bakoitza gai jakin batean zentra daiteke: herriko mugikortasuna, baliabide naturalak edo berdeguneak, puntu jakin batzuetarako irisgarritasuna, oinezkoentzako guneak, osasun-zentroak, ikastetxeen kokalekua, kolektibo jakin batzuentzako zerbitzuak (adinekoak, gazteak, etorkinak, emakumeak, etab.)...

Bigarren saioan, lortu duten informazioa bilduko da, analizatu eta mapan jarriko dute: mapa marraztua izan daiteke, edo kartografikoa, eta maketak ere egin litezke.



# 3. Munduko merkaturia



Bidezko merkataritza, harreman komertzialak, tokiko denda txikiak.



Ordubete, gehi aldez aurretik prestatzeko denbora.



Aldez aurretiko prestakuntzarako Internetarako sarbidea edo ikastetxetik irteteko aukera; jardueran zehar boligrafoa eta pape-  
ra beharko dira. Jarduera hau Munduko Hiritarrok, Parte hartzea materialetatik egokitu da ([www.educacion.alboan.org/eu/](http://www.educacion.alboan.org/eu/)).



Taldea talde txikiagotan banatuko dugu. Talde bakoitzak Hegoaldeko herrialderen batean egindako produktuen etiketak bilatu beharko ditu. Gero, produktu horiek auzoko dendara iritsi arte egiten dituzten pausoak pentsatu beharko dituzte, eta merkaturatzean parte hartzen duten agenteek azken preziotik hartzen duten portzentajea kalkulatu beharko dute:

**Produzitzailea:** lehengai egiten duena, nekazaria, artisaua... **Herrialde produktzaileak:** produktu den herrialdeko gobernuak. **Bitartekariak:** merkataritzako enpresak, garraio- eta inportazio-enpresak, transnazionalak. **Prozesatzaileak:** lehengai prozesatzen duten fabrikak eta industriak. **Txikizkariak:** denda eta merkatuetako merkatariek..

Produktu bakoitzaren portzentajeak kalkulaturakoan, taldeka konparatuko dituzte honako portzentaje hauekin:



Azkenik, auzoko mapa bat egingo dute eta analizatu dituzten produktuak non aurki daitezkeen markatuko dute, puntu bakoitzean produktu-zerrenda jarrita.

Talde handian partekatuko dituzte aztertu dituzten herriko dendak, eta produktu horiek dendetara iritsi arte egiten duten bideari buruz hausnartuko dute. Eskatuko zaie analiza dezatela banaketa horrekin nork irabazten duen eta nor ateratzen den galtzaile, eta zer egin daitezkeen banaketa justuagoa izan dadin.

# Kili-kolo



Eskubideak eta betebeharrak, erantzukizunak.



Ordubete.



Kili-kolo jokoa (maileguan ematen da ALBOANen baliabide-zentroan: [www.centroderecursos.alboan.org](http://www.centroderecursos.alboan.org), mahai-jokoko bertsioan eta joko handiaren formatuan).



Dinamika aurkeztuko dugu, herritar gisa ditugun eskubideez jabetzeko pentsatutako joko bat da, eskubideez jabetzeko eta eskubide horiek dakarten erantzukizuna ulertzeko.

Taldea 2 talde txikiagotan banatuko dugu. Talde bakoitzak idatziko ditu bere ustez dituen edo izan beharko lituzkeen

eskubideak; gero, eskubideak irudikatzen dituzten egurrezko piezak jarriko dituzte, banan-banan, pieza bat eskubide bakoitzeko. Talde batek eskubide bat jartzen duen bakoitzean, beste taldeak betebeharrak jarri beharko du taularen beste aldean (ezegonkorrean), paper batean obligazioa idatzita, bi fitxak orekatzeko. Dinamikak jarraituko du harik eta zerrendako eskubide eta betebeharrak guztiak orekatu arte.

Jokoa amaitutakoan, debatea proposatuko dugu talde handian. Era honetako galderak egin daitezke hausnarketan laguntzeko: jabetzen zara dituzun erantzukizunnez?, betetzen dituzula uste duzu?, eta zure inguruko jendeak?, edo, nola lor genezake jendea arduratsuagoa izatea bere ekintzetan?.



# 5.

Noh  
hago?



Topaketa pertsonala, erlaxatzea, barnekotasuna.



5 minutu.



Leku irekia, lasaia.



Ariketa labur bat da, Iparraldeko errealitatea analizatzen hasi aurretik hasierako dinamika moduan erabil daiteke. Hasteko, erlaxatzeko ariketen onurak azal ditzake hezitzaileak: arnasketa normala, behartu gabea, tentsioak ezabatze sentsazioa, zirkulazioa aktibatzea, irudimena ea intuizioa estimulatzea, kontzentrazioa eta arreta potentziatzea,

Taldearen laguntzaileak gidatuko du ariketa. Taldea animatuko dugu eroso kokatzera espazioan, zutik, oinak pixka bat zabalduta eta belarriak apur bat flexionatuta. Besoak zintzilik uzteko esango zaie, lasai, indarririk egin gabe, alboetan. Gero, begiak itxi, eta urrats hauek egin beharko dituzte::

**1. Sentitu burua, burugainetik hasita,** sentitu nola erlaxatzen den pixkanaka, aurpegi muskuluetara iritsi arte.

**2. Sentitu sorbaldak,** astindu pixka bat, erlaxatu.

**3. Sentitu toraxa eta gorputzaren aurrealdea,** sentitu amasa naturala.

**4. Erlaxatu bizkarra,** sentitu nola lasaitzen diren bizkarreko muskulu guztiak.

**5. Erlaxatu besoak,** hatzen puntara iritsi arte.

**6. Erlaxatu zangoak,** lehenengo bat eta gero bestea. Eta iritsi behatzetaraino, sentitu tentsioa nola irteten den zure

gorputzetik.

**7. Gorputz guztia erlaxatu ondoren, erlaxatu burua.** Ahaztu kezka edo egiteko daukazun lanei buruzko pentsamen-  
duak. Utzi pasatzen zure burura iristen denari..

Amaitzeko, taldea animatuko dugu, lortu duten egoeran, hurrengo saioan egingo duten lana proiektu dezaten, goitik hasita, auzoaren edo herriaren gainean hegana dabilen txori bat balira bezala, bisualiza ditzaten etxeak, kaleak, parkeak, ingurunea, kateak dabilen jendea, garraio-bideak, irekita edo itxita dauden dendak...

Horrela, erlaxatuta eta lasai egotea lortuta, dinamika amaituko dugu.



Mundu  
uniFormea.  
Mundu  
ahitza.



Guztientzako hezkuntza, Hezkuntza inklusiboa.



45 minutu.



Hezkuntzaren aldeko 2014ko Munduko Kanpainako materialetan oinarritutako jarduera ([www.cme-espana.org](http://www.cme-espana.org))



Taldearen dinamizatzaileak proposatuko die pentsa eta deskriba dezatela nolakoa izango litzatekeen uniformetasunaren kontsigna nagusituko litzatekeen planeta edo lurralde zehatz bat. Deskribatu beharko dute nola jango litzatekeen, nola jantzi, zein hizkuntza erabili, nor izango litzatekeen gidari, produkzio nagusia, moneta, etab.

Ondoren, proposatuko zaie pentsa eta deskriba dezatela bestelako kontsigna hau izango lukeen planeta edo lurralde bat:  
**“Gaitasunak batu ditzagun. Hezkuntza inklusiboaren alde”.**

Bi ariketak egindakoan, talde handian kartoi mehetan idatziko dituzte aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak. Gero, irakasleak proposatuko die pentsa dezatela kasu horiek zer ondorio dituzten gure oraingo egoeran eta hezkuntzan.

Analisia egin ostean, definizio hauek irakurriko ditugu:

\* **Hezkuntza inklusiboa:** Pertsona guztiek, haur, gazte nahiz helduek, ikasteko duten premiari erantzun nahi dion hezkuntza-modeloa da, eta arreta berezia ematen die marjinatuak edo gizartean baztertuak izateko arrisku handiagoa dutenei.

Hezkuntza inklusiboak kontuan hartzen ditu eta asetzen saiatzen da desgaitasunarekin eta ingurumenarekin zerikusia



duen premiak, baina ez horiek bakarrik. Horrek esan nahi du eskoletan ikasleen era guztietako premiak ezagutzen eta asetzen saiatu behar dela, arraza, generoa, gizarte-maila edo kultura dela-eta bereizketarik egin gabe.

Hezkuntza inklusiboaren kontzeptua uler badaiteke ere gaitasun bereziak dituzten haurrak eskola arruntetan integratzeko hezkuntza gisa, hori baino zabalagoa da terminoa, hezkuntza-sistemen eraldaketa progresiboari erreferentzia egiten dio, sistema horiek kalitateko hezkuntza eman diezaieten pertsona guztiei, berdintasunean eta aniztasunari egokituta.

\* **Gaitasunak:** pertsona, entitate edo erakunde batek lan edo eginkizun bat burutzeko dituen baliabideak eta trebetasuna.

Guztion artean, galdera hauei erantzuten saiatuko gara:

- *Nolako izan behar du hezkuntza inklusiboa bultzatzen duen eskolak?*

- *Horrelakoa da nire eskola?*

- *Nola baloratzen ditu nire inguruko gizarteak desgaitasuna duten pertsonak?*

- *Nola baloratzen ditut nik?*

- *Zein dira desgaitasuna dutenek hezkuntzara iristeko izaten dituzten oztopo eta barrera nagusiak?*

- *Nire eskolak egiten ote du barrera horiek ezabatzearen aldeko apustua?*

- *Nola egiten du?*

- *Eta auzoko edo herriko eskolek?*



## Nolako Betaurrekoak dituzu?



Pertsona-klaseak, elkarbizitza.



60 minutu.



Kartoi mehea, errotuladoreak, argizarizko pinturak, eranska-  
iluak, lana, plastikozko betaurrekoak, dekoratzeko, eraikitze-  
ko eta sortzeko materiala.



Taldearen laguntzaileak jarduera aurkeztuko du, lehenik eta behin diren gizartearen analisia egin beharko dute, auzoan, herrian edo hirian bizi diren pertsona-klase desberdinei erreparatuta.

Idea-jasa batekin hasiko dira, eta arbelean idatziko dituzte inguruan ikusten dituzten pertsona-kategoria desberdinak. Ideia-jasa horren ondoren, binaka jarrita, kategoria horietako bat edo bi hautatuko dituzte eta betaurreko-pare bana egingo dute, hautatu duten pertsona horrek eguneroko bizitzan errealitatea nola ikusten duen adierazteko.

Betaurreko guztiak eginda daudenean, taldeko kide bakoitzak betaurreko-pare bat jantziko du eta errealitatea ikuspegi horretatik ikusten saiatuko da, pertsona hori eguneroko bizitzan nola portatzen den, non ikasten duen, nola jantzen den, ingurukoak nola tratatzen dituen, handitan zer izan nahiko lukeen, etab. imajinatuz. Jokoa zehar, hainbat sentsazio sentituko dituzte, eta ikasleak animatuko ditugu bakoitza nola sentitzen den, nola hitz egiten dioten, berak besteei nola hitz egiten dien... aztertzea.

Beste pertsona batzuen larruan sartzeko esperientzia egin ondoren, talde handian eztabaidatuko dugu betaurreko zehatz batzuei buruz: solidaritatearen betaurrekoei buruz. Hezitzaileak galdetuko die non aurki daitekeen jende solidarioa, errealitatea eraldatzen laguntzeko prest egongo dena, gure hurbileko ingurunean.



**Eguzkitako betaurrekoak:** batzuek beti dena beltz ikusten dute. Alderdi negatiboa baino ez dute ikusten, besteei buruz duten pertzepzioa estimulu ezatseginetara joaten da, munduaren ikuspegi pesimista eta eszeptikoa dute, dena hain gaizki dagoenez, onena ezer ez egitea dela iruditzen zaie.

**Koloretako "fashion" betaurrekoak:** aitzitik, beste batzuentzat dena "super-ondo" egoten da. Horientzat, argi eta kolorezko tonbola da bizitza. Optimistegiak dira.

**Urpeko betaurrekoak:** Batzuek egun guztia besteen barruan murgilduta, sakonean buzeatzen, pasatzen dute. Besteen sekretuak, iragana, problema ilunak ezagutu nahian ibiltzen dira, laguntzeko modu bakarria hori dela iruditzen zaielako.

**Handitzeko betaurrekoak:** Batere garrantzirik ez duten txikikeriatan galtzen dute denbora, gauza garrantzitsuei jaramonik egin gabe.

**Begiluzeen betaurrekoak:** Maisea-tzaileak, kuxkuxeroak dira, morboa eta

izugarrikeria bilatzen dute, ingurukoen desgraziak.

**Ispilu-betaurrekoak:** batzuk errealitatearen ispilu izaten dira, errealitatea den bezalaxe islatzen dute baina errealitate horrek ez die eragiten, ez die galderarik sorrazten, ez dute sentitzen.

**Adar-jotzailearen betaurrekoak (sudur handia duten horiek):** batzuek bizitza brometan hartzen dute. Beren itzalari ere barre egiten diote. Zailtasunak brometan hartzen dituzte. Askotan, ez dute jakiten muga non dagoen.

**Kolpeen kontrako betaurrekoak (brikolajekoak):** batzuek arrisku guztien aurrean babestuta egon nahi dute. Mundua leku arriskutsutzat daukate, beste batzuen ideiekin eta bizitza ikusteko moduarekin kutsatzeko beldur dira.

**Erabilera anitzeko betaurrekoak:** per-

Taldeari ideiak ematen lagun diezazuketen betaurreko eta kategoria batzuk aurkeztuko dizkizugu:

tsona praktikoak besteei buruzko ikuspegiaren, edozertarako prestatuta egotea gus-tatzen zaie, erremedio eta errezetaz beteta eramaten dute poltsa "badaezpada ere".

**Begiak zapiz estalita:** batere ikusten ez duenik ere bada. Batzuek beren buruari begira bizi dira erabat, egunero sortzen zaizkien arazo txikiekin kezkatuta, eta ez dira gai ingurukoen premiez ohartzeko.

**Argidun betaurrekoak:** Iluntasunak izutzen dituenentzat, beste errealitate bazuetan murgiltzeari beldurra diotenentzat. Horregatik eraman behar dute argia, eta, soluzioa ikusi arte, ez dute ezer egiten.

**Solidaritetearen betaurrekoak:** gero eta gehiago dira (hori espero dugu behintzat) besteari solidaritatearen betaurrekoekin begiratzen diotenak. Betaurreko horiek jantzita, bihotzarekin ikusten dira besteak eta, hortik abiatuta, bestearen lekuan jartzen dira, harekin batere sentitzen dute, eta hobeto ikusten eta ulertzen dute zer gertatzen zaion. Eta besteak sentitzen du entzuten diotela, ulertzen diotela eta baloratzen dutela.

# 8.

## ZURRUMURRUEN aurka



Aurreiritziak, estereotipoak.



45 minutu.



Zinta itsaskorra (margolariak erabiltzen dutena bezalako), errotuladoreak, folioak.



Zinta itsaskorrean nazionalitate edo kultura desberdinak idatziko dira: marokoarra, perutarra, errumaniarra, ijitoa, estatubatuarra, errusiarra, alemana, euskalduna, kongotarra, txinatarra, euskalduna, japoniarra, portugesa, kolonbiarra, brasildarra, indiarra, palestinarra.

Hezitzaileak ikasle bakoitzaren kopetan zinta bat itsatsiko du, ikasleak ikusi gabe, eta folio zuri bat jarriko dio bizkarrean. Hortik aurrera, ariketa egiten ari diren lekuan ibiltzen hasi behar dute, besteek kopetan dutena irakurriz, eta bizkarreko folioan bakoitzari idatzi behar diote kultura horrek zer iradokitzen dien, nola erreakzionatzen duten nazionalitate horretako pertsona batekin topo egiten dutenean... "lehenengo bururatzen zaiena" jartzeko esan behar zaie, buelta gehiago eman gabe. 10 minutu pasatutakoan, talde handian elkartuko dira eta folioa kenduko dute. Bakoitzak irakurriko du besteek bizkarrean idatzi diotena, eta kopetan daraman zintak zer dioen asmatu beharko du.

Asmatzen duenean, talde handian debatituko da idatzi dituzten pentsamenduei buruz. Hausnarketan lagungarri izan daitezkeen galdera batzuk:

- *Personalki eza gutzen duzu azaldu diren nazionalitate, kultura horietako inor?*
- *Idatzi duzun bezala jokatzeko duzu haiekin?*
- *Uste duzu ezaugarri horiek benetakoak direla?*
- *Beste kultura batzuei buruzko estereotipoak edo aurreiritziak ditugula uste duzu?*
- *Idea horietako asko zurrumuruak dira?*
- *Zer egin genezake zurrumuru horiekin bukatzeko?*

# 9

## Zertan erabiltzen dira aurrekontu publikoak?



Aurrekontu publikoak, gastu militarrek, gastu sozialak.



60 minutu.



Prentsako ebakinak, Internet konexioa (mugikorra, ordenagailua), erkidegoko edo herrialdeko gastu militar eta sozialei buruzko datuak.



Saioa hasi aurretik, taldekoei eskatuko zaie egunkarietan bila ditzatela nazioartean une horretan gertatzen ari diren gerra eta gatazka armatuei buruzko albisteak, eta ebaki eta ikasgelara eraman ditzatela. Ikasgelan albiste horiekin elkartu ondoren, talde txikiagotan banatuko dira. Talde bakoitzak collage bat egingo du ebakinekin eta galdera honi erantzungo dio:

**nondik ateratzen dute herrialdeek dirua amak erosteko eta gerra finantzatzeko?.**

Gero eskatuko zaie, lehengo talde beretan, pentsa dezatela nola banatzen diren beren udalerriko aurrekontu publikoak: gastu sozialak, hezkuntza, osasuna, gastu militarrek eta beste. Gastu horiek kartoi mehean idazteko esango zaie, bila ditzatela datuak Interneten, udalaren webgunean, eta egiazta ditzatela. Bilaketa amaitutakoan, talde handian elkartuta, egin dituzten kartelak azalduko dituzte eta galdetuko diegu, beren ustez, nola banatu beharko litzatekeen gastu publikoa, beren herrian ongi egiten dela iruditzen zaien edo zertan gastatuko luketen gehiago de gutxiago. Ondoren ematen diren datuak 2010ekoak dira, Kakitzat Koordinakunde Antimilitaristak emanak, eta lagungarriak izan daitezke azalpenak emateko eta ordutik hona azken urteotan gertatu diren aldaketak aztertzeko.:

### gastu militarrek

*Estatuko gastu militarra 18.000 milioi eurokoa izan zen 2010ean, EAEk 1.500 milioi euroko ekarpena egin zuen gastu horretan. Horrek esan nahi du EAEko pertsona bakoitzak 725 euro jarri zituela. EAEk material militarra saltzen du, urtean 600 milioi euroko baliokoa. EAEko 75 enpresa amak fabrikatzen eta diseinatzen dira.*

### Premia sozialei erantzuteko gastuak

*2010ean 128.201 mila pertsona zeuden langabezia, eta horietatik 48.000k ez zuten inolako prestaziorik kobratzen. 117.394 familia pobrezia-egoeran zeuden, eta 182.240 familiak arazoak zituzten hilaren bukaerara iristeko.*

# Postreak

{ Parte-hartzearen eta Boluntariotzaren Blokea }

Postera iritsiko gara ikasleak parte-hartzea, konpromisoa, boluntariotza eta horrelako gaietan formatzeko jarduerekin. Bloke honek erakusten du Hegoaldeko eta Iparraldeko errealitateen artean dagoen konexioa, globalaren eta lokalaren arteko lotura, eta injustizien eta horien kontra borrokatzeko aukeren artekoa, neska-mutilek ikus dezaten zer egin dezaketen errealitatea eraldatzeko.

Helburua da aldaketaren parte izateko duten ahalmenaz hausnartzea, eta horretarako behar dituzten tresnak eskaintzea.

*“Egunero bataila bat, hautsi dugun arau bat,  
Ozaten jarraitu ahal izateko sortu dugun mirari bat.  
Ero bakarti, triste beteak.  
Emakume eroak, intentsoak, eroak, zinezko emakumeak.”*

*Rosa Maria Roffiel*

# 1. Herritartasunari Buruz...



Herritartasuna, eskubideak, erantzukizunak.



15 minutu.



Arbela edo kartoi mehea eta errotuladoreak.



Arbelean Herritartasuna hitza idatziko da, goitik behera, letren artean tarteak utziz.

Taldeko neska-mutilei eskatuko zaie irten daitezela arbelerara eta idatz dezatela "Herritartasuna" irakurtzean bururatzeko zaien lehenengo hitza. Scrabble jokoan bezala egin behar dute, lehenik idatzita dagoen hitz baten letra bat aprobeztatuz.

Taldeko guztiek hitz bat behintzat idatzi eta azaldu dutenean, herritartasunaren definizioa lantzen saiatuko gara taldeko guztien ekarpenarekin oinarrituta. Ikasle batek definizioa idatziko du kartoi mehe batean, ikasturte osoan presente izateko.

*"Ez gara esperientzia espiritual bat izaten ari diren gizakiak. Giza esperientzia bat izaten ari diren izaki espiritualak gara"*

*Teilhard de Chardin*



## 2.

Lidergo-  
dantza

Konpromisoa, komunitatea, lidergoa, ospatzea.



30 minutu.



Lidergo-dantza (Nikaraguako Canteraren Dantza erritualen diskoan aurkituko duzu musika, maileguan [www.centroderecursos.alboan.org](http://www.centroderecursos.alboan.org) webgunean), musika-erreproduzigailua, erdian jartzeko bost zentzumenen adivasien mandala erabil dezakezu (maileguan 'Zure bizitza Indian' erakusketan [www.centroderecursos.alboan.org](http://www.centroderecursos.alboan.org) webgunean) edo Aldare maya bat egin dezakezu (lau elementuak velkartzen dituen zentro bat ere egin dezakezu), kandelak, intzentsua.



Dinamika hau egiteko, taldea motibatu behar da aldez aurretik. Parte-hartzaileei eskatuko diezu zentra daitezela beren gorpuz eta burua elkarrekin konektatzearen garrantziaz, horregatik egiten da jarduera hau testu batekin, dantza batekin eta komunitatean partekatzeko espazio batean. Hasteko, espazio hori prestatu eta girotu behar da. Leku zabal eta eroso behar du, oinutsik ibili ahal izateko modukoa, lurrarekin edo zoruarekin kontaktuan egoteko. Erdian zentro edo aldare bat sor dezakezu, adivasien Mandala bezalako materialen bat erabil dezakezu horretarako, edo zeuk egin bestela, naturako elementuekin. Intzentsu pixka bat jar dezakezu taldea iritsi aurretik, zentzumenak irekitzen laguntzeko. Dantzaren musika hasieratik jar dezakezu, ezagutuz eta barneratuz joan daitezen.

Taldea zirkuluan jarrita dagoenean, isilik egotea eta elkar errespetatzea oso garrantzitsua dela azalduko diezu. Erosu jartzera animatuko dituzu, oinetakoak erantzera nahi badute. Gero, Eduardo Galeanoren testu hau irakurriko diezu:

*Kolonbiako kostaldeko Nequá herriko gizon batek zerura igotzea lortu zuen. Itzuli zenean, han ikusitakoa kontatu zuen. Han goitik, girra birziari begira egon zela esan zuen. Eta su triki<sup>2</sup> osatu-tako itsaso bat garela esan zuen. Hori da mundua -arzaldu zuen- jende pilo bat, su trikien itsaso bat. Pertsona bakoitzak bere argiarekin dir-dir egiten du beste guztien artean. Ez daude bi su berdin. Su handiak eta su trikiak daude, eta kolore guztietako suak. Su lasaiak daude, haizea nabaritu ere*



*egiten erz dutenak, eta su eroa duen jendea, airea txinpartan, betetzen duena. Su batzuek, su leloak, erz dute argi egiten erza erretzen ere, baina beste batzuek gar birzia ematen diote birjitarari, gogo ikaragarri, ezin zaie begiratu begiak kliskatu gabe, eta hurbiltzen zaiena berotu egiten dute.*

Testua irakurri ondoren, galdetuko diezu zerk dirdirarazten dituen, zerk bihurtzen dituen su eta zerk ematen dien errealitate aldazteko ahalmena. Kandela bana emango diezu, piztu dezaten eta prestatu duzun zentroan jar dezaten, bakoitza den su txiki hori irudikatzeko eta guztien artean su txikien itsasoa osatzeko.

Dinamikarekin jarraituz, lidergo-dantza aurkeztuko duzu. Komunitate indigenetako lidergoa irudikatzen du dantzak, ikasleek sortu dutena bezalako taldeen lidergoa. Dantzak lau pauso ditu, taldeen momentu edo jarrera desberdinak sinbolizatzen dituztenak:

**1. pausoa. Samurtasuna, txera, kariñoa, konfiantza**  
Eskuineko eskuarekin, ezkerreko besoaz laztanduko duzu samurtasunez.  
Errepikatu 4 aldiz, besoz aldatuta txandaka.

*jaitsi besoak beherantz. Aldi berean, jarri oin-puntetan besoak igotzen ari zarenean, eta jaitsi orpoak besoak beheratzean, kulunkaulki baten mugimenduaren antzera. Errepikatu 4 aldiz.*

*duzunean eskaintzen duzun guztia simulatuz. Errepikatu mugimendua barnerantz, norberaren buruarengana, taldearengandik eta taldeki-deengandik hartzen ari garela irudikatzeko. Errepikatu 4 aldiz.*

*zure buruaren inguruan. 4 aldi dira. Posizio berean, mugitu espazioan besteenganantz, taldeko ospakizuna da. Beste 4 aldi dira.*

**2. pausoa. Pazientzia**  
Esku-ahurrak gora begira direla, besoak alboetan, kulunkatuz, jaso besoak gorantz, eman buelta eskuei eta, ahurra behera begira,

**3. Pausoa. Eman eta hartu.**  
Zango bat zentrorantz makurtuta, mugitu bi besoak zirkuluan taldearen erdirantz, besteekin partekatzen

**4. Pausoa. Neure buruarekin eta besteekin ospatu.**  
Jaso besoak gora eta, besoak zirkuluan mugituz eta eskuak biratuz, eman bueltak

**4 pausok errepikatuko dira abestia bukatu arte.**

Dantza bukatzen denean, taldeari eskatuko zaio manten dezala bakoitzarekiko konexio-giroa eta saioan zehar sortu den komunitate-sentsazioa.

# 3. Munduko gauzarik ederrena



Konpromisoa, ilusioa, eraldatzeko gogoia.



30 minutu.



“Lo más bello del mundo” abestia, Canteca de Macao taldearen Nunca es tarde diskokoa (2012), musika-erreproduzigailua, abestiaren letraren fotokopia.



Talde handian, aurkeztu neskak eta dinamika, begiak itxita eta musikak transmititzen dituen sentsazioetan zentratuta; lehenengo aldiz entzungo dute “Canteca de Macao” taldearen abestia.

Bukatzen denean, berriro jarriko diezu abestia, eta eskatuko diezu begiak itxita jarrai dezatela eta letra entzun dezatela, eta gero fotokopian azpimarra dezatela atentzioa gehien ematen dien esaldia.

Abestia bukatutakoan, eskatuko diezu arbelean idatz dezatela aukeratu duten esaldia, horrela, guztien artean abesti berri bat osatzeko.

Gero hausnarketari emango diozu hasiera, era honetako galderak eginez: zer da beraiek egin dezaketene munduko gauzarik ederrena? uste dute zerbaitetara dedika daitezkeela eta aldi berean errealitatea aldatu? uste dute aldaketa posible dela eta badagoela jendea indartsu datorrena munduko injustiziekin amaitzeko gogoarekin?

## Munduko gauzarik ederrena.

*Tormenta de un huracán que avecina cambios.  
Mochila cargada a la espalda pa' caminar.  
Respiro aire puro al pensar que está en nuestras manos  
seguir manejando el timón de la libertad.*

*Se escuchan los pasos que vienen pisando fuerte.  
Se asoma un rayito de sol en la oscuridad.  
Es tiempo de las ideas, de reinventar el presente,  
empujar con más fuerza y dejar de mirar atrás.*

*El ruido del corazón, motor de cambio.  
La sonrisa entre tú y yo, motor de cambio.  
Al final es algo más profundo,  
me dedico a lo más bello del mundo.*

*Se entiende que nunca es fácil abrir camino,  
pero la marcha más larga con un paso ha de empezar.  
Cuidado con la chispa pequeña que es la que prende la mecha,  
se contagia deprisa, no avisa y no va a parar.*

*Sembrar ilusiones y verlas crecer.  
Pasito a pasito, tranquila y acompasando.  
Colorear cada momento como regalo.  
Sortear las olas sin bajarme de este barco.  
Me atrapa de nuevo el compás,  
este tren no tiene pinta de parar.  
Tremenda máquina para olvidarse de todo.*

*El ruido del corazón, motor de cambio.  
La sonrisa entre tú y yo, motor de cambio.  
Al final es algo más profundo,  
me dedico a lo más bello del mundo.*

*Y no sabemos si nos miente  
este sistema de hacer lo que uno siente.  
Y no sabemos no, si nos miente  
esta manera de hacer lo diferente.  
Pero sí sabemos a quien le duela  
que lo importante es gozar con la gente del mundo.*





## Parte-hartzearen kiniela



Parte-hartzea, konpromiso pertsonala, talde-lana.



60 minutu.



Kiniela-fitxa, zinta itsaskorra (margolariak erabiltzen dutena bezalakoa).



Fitxa fotokopiatua banatuko zaie taldekide guztiei, hori da parte-hartzearen kiniela. Bakoitzak bere fitxa bete beharko du, denbora emango zaie erantzunak lasai pentsatzeko.

Fitxa osatutakoan, ikasgela bitan banatuko duzu, lurrean zinta itsaskorra jarrita. Banan-banan irakurriko dituzu adierazpenak eta taldekideak alde batean, bestean edo erdian kokatuko dira, eman duten erantzunaren arabera.

Adierazpen bakoitzarekin, taldeko guztiak beren lekuan jarri direnean, alde bakoitzekoek beren jarrera azaldu eta argudiatuko dute, eta lekuz aldatu ahal izango dira debategen zehar iritzia aldatzen badute.

|   | 1 | X | 2 |
|---|---|---|---|
| Parte hartuz denok irabazten dugu   |   |   |   |
| Pertsona guztiok dugu gure bizitzako uneren batean boluntario izateko betebeharra                   |   |   |   |
| Parte hartzeko, bizimolde konprometitua eta koherentea izan behar da                                |   |   |   |
| Gizarte-erakundeek, gaur egun, ezin dute erabaki politikoetan eragin                                |   |   |   |
| Boluntariotza-esperientziak dira modurik onena urruneko eta hurbileko beste mundu batzuk ezagutzeko |   |   |   |
| Pertsona batek egiten ez duen ekarpena ezingo du beste inork egin                                   |   |   |   |
| Pertsona bakar batek ezin du ezer aldatu; pertsona guztion artean, bai, lor dezakegu                |   |   |   |
| Gero eta jende gehiago dago gizartean parte hartzeko prest  |   |   |   |
| Solidaritatea praktikatzeari ezer ere ez aldatzeko aitzakia da                                      |   |   |   |
| Solidaritetea gizarte-plataformetatik gauzatzen da batez ere  |   |   |   |
| Kontzertu solidarioetan parte hartzea solidaritatea gauzatzeko modu on bat da                       |   |   |   |
| Solidaritetea interes komertzialeko objektu huts bihurtu da   |   |   |   |
| Solidariteteak, zerbaiti uko egiten ez bazaio, ez du ezertarako balio                               |   |   |   |
| Pertsona askok ez dute parte hartzen ez dakitelako nola egin  |   |   |   |
| Parte hartzen dugularik, errealitatea aldatzen dugu beti  |   |   |   |

# 5. Silueta



Aniztasuna, sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa, kulturartekotasuna.



60 minutu.



Papelografoa, errotuladoreak, jarduera hau Janavak gida didaktikokoa da ([www.educacion.alboan.org](http://www.educacion.alboan.org) webgunean aurkituko duzu).



Taldekide bat estraza-paperaren gainean jarriko da eta haren silueta marraztuko da paperean. Silueta bi zati berdinetan zatitu behar da.

Eskuineko aldean, beste kultura batzuek norberaren kulturari buruz dituzten estereotipoak idatzi edo marraztuko dituzte. Horretarako, planteatu daitezke: nola uste duzu ikusten zaituztela beste kultura batzuetakoek? Nolako etiketak jarriko dizkizute?

Ezkerreko aldean, bakoitzak bere kultura nola ikusten duen adierazi behar du, barrutik daukan irudia.

Aldeetako batean zerbait idazten duten bakoitzean, taldeko guztiei azalduko diete.

Ariketa bukatzean, ikuspegi desberdinak irudikatzen dituen silueta bat izango dute, errealitate desberdinen desinformazioa eta ezjakintasuna ere erakutsiko dituenak. Animatuko dituzu pentsatzera zein diren desinformazio horren arrazoiak eta zer proposa daitezkeen gorputz bera osatzen duten bi aldeei buruzko ideiak bateratzeko.

# 6 Bestelako mundu bat posible da



Giza eskubideak, gizartearen parte-hartzea, genero-berdintasuna, guztientzako hezkuntza.



60 minutu.



Antzara-jokoa, mahai-jokoaren bertsioan edo handiagoan, biak daude eskuragai Baliabide-zentroan [www.centroderecursos.alboan.org/eu](http://www.centroderecursos.alboan.org/eu) webgunean.



Talde handia talde txikiagotan banatuko dugu. Talde bakoitza fitxa bat izango da, pertsonaia bat edo kolore bat, eta jokoa hasiko da. Helburua taulan aurrera egitea da, errealitatea eraldatzeko pista bila, injustziarekin amaitzeko probak gaintuz edo galderei erantzunez. Antzara-joko klasikoan oinarrituta dago, neska-mutilek dadoa bota beharko dute eta laukietan aurrera egin, mundu justuago bat lortzera iritsi arte.

# 7. Hitz-en Bidez Bide Berriak Eraikitzea



Guztionezko hezkuntza izateko eskubidea, alfabetatzea, pobrezia, desberdintasuna, gizartearen parte-hartzea.



60 minutuko 2 saio.



Internetarako sarbidea duten ordenagailuak edo mugikorrak, kartoi mehea; Hezkuntzaren aldeko 2009ko Munduko Kanpainako materialetan dago jarduera (Abre un libro, abre el mundo, [www.cme-espana.org](http://www.cme-espana.org)).



Binaka jarrita, gobernuen edo hezkuntzan espezializatutako GGKEen bidez hainbat herrialdeetan egin diren alfabetatze-kanpainei buruzko informazioa bilatu beharko dute. Bikote bakoitzak herrialde bati buruzko informazioa bilatu beharko du, adibidez: Bolivia, Nikaragua, India, Txad, Kongo, Zimbawe, Peru, Kolonbia, Guatemala, Mexiko, Espainia, Txina, etab. Ikertu duten herrialdeko kanpainei buruz aurkitu duten informazioa idatziko dute bikoteek, horietako bat edo bi aukeraturiko dituzte, eta galdera hauei erantzungo diete:

- Non egin zen kanpaina?

- Zein une historikotan egin zen?

- Zein ziren kanpainaren helburuak?

- Zein gizarte-sektore mobilizatu ziren?

- Nork hartu zuen bere gain alfabetatzeko rola?

- Arrakastarik izan zuen kanpainak?

Bikote bakoitzak dagokion informazioa jaso duenean, talde handian egingo da bateratze-lana. Bikote bakoitzak bere kanpaina azalduko du eta post-it bat jarriko du kanpainaren izenarekin, dagokion herrialdean, Peters mapa batean.

Lan hori egindakoan, eta talde handian, debatea irekiko da ikasleen komunitatean alfabetatze-kanpaina bat martxan jartzeko zer egin beharko litzatekeen eztabaidatzeko. Ideia-jasa bat egin beharko dute, errealitatea aztertu, helburuak adierazi eta hortik abiatuta urratsak hautatu eta kronologikoki ordenatu. Gainera, kanpainarako ekintza-plana pentsatu beharko dute, eta zabalkundea nola egingo den eta zein organizaziorekin elkar daitezkeen plan hori martxan jartzeko.

# 8 gure historia alda dezakegu



Eraikuntza kolektiboa, parte-hartzea, etorkizun probablea eta nahi den etorkizuna.



60 minutu.



3 kartoi mehe handi, errotuladoreak edo koloretako argizarizko pinturak.



Talde handia hiru taldetan banatuko dugu. Talde bakoitzak bere auzoa edo hiria marraztu beharko du, txori-begiz, historiako momentu jakin batean. Talde batek iragan irudikatuko du (duela 50 urte), beste talde batek orainaldia marraztuko du eta hirugarren taldeak etorkizuna (50 urte barru).

Sortzeko lanean laguntzeko, hona galdera edo ideia batzuk:

- Zure hiriaren gainean hegan egingo bazenu, zer ikusiko zenuke?
- Biztanle-kopurua, biztanleen deskripzioa (adina, arraza, hizkuntza...).
- Jendea nola bizi den, arazo sozialik dagoen (gizartetik baztertutako taldeak, tratu txarra jasaten duen jendea, bakarrik dauden adinekoak, kale gorrian bizi diren etxegabeak...)
- Natura nola dagoen, ondo edo gaizki zainduta, parkeak eta ibaiak... Nola kudeatzen da zabor-bilketa eta birziklatzea?
- Nolakoak dira ikusten dituzun eskolak, nor joaten da eskolara, eta unibertsitatera edo bestelako ikastegiatarara?
- Nolakoak dira ospitalea eta anbulatorioak? Gaixorik dagoen edonor joan daiteke doan?
- Zein garraiobide erabiltzen da gehien?
- Nola hartzen dira erabaki publikoak hirian? nork erabakitzen du, eta nola?

Marrazkia osatu ondoren, taldeek azalduko dute zer marraztu duten eta zergatik. Etorkizuneko proiektzioa ikusitakoan, hezitzaileak taldekoei galdetuko die denak ados dauden ikuspegi horrekin. Planteatuko zaie ba ote dagoen ezer probablea, baina ez desiragarria, iruditzen zaiena. Zer egin liteke egoera horiek aldatzeko eta desiragarri bihurtzeko?

Talde handian, 5 puntu edo konpromiso erabakiko dira, pertsonalki har ditzaketenak eta desiragarri dena errealitate bihurtzen eta probable dena eragozten lagun dezaketenak.





## TRATU TXAR SOTILA eta nesken kontuak.



Gizonen eta emakumeen berdintasuna, parte-hartzea, duintasuna, errespetua.



60 minutu.



Datuen fotokopia, kartoi meheak, errotuladoreak, ordenagailua eta “El maltrato sutil” bideoa proiektatzeko kanoia ([http://www.youtube.com/watch?v=0y9zuJ5J2bWA&feature=player\\_embedded](http://www.youtube.com/watch?v=0y9zuJ5J2bWA&feature=player_embedded))



Jarduera hau urteko edozein garaitan egin dezakezu, edo azaroaren 25arekin, genero-indarkeriaren aurkako nazioarteko egunarekin, lotuta landu.

Hasteko, banatu fotokopia bat “Violencia psicológica en las relaciones de noviazgo” (2008, Norma Vázquez, lanire Estébanez eta Itziar Cantera) ikerketa-lanetik ateratako datu hauekin:

*-Nesken %80k eta mutilen %75ek ez dute erlaziozatzen maitasunik eza tratu txarrekin. Pentsatzen dute gehien maite denari eraso dakiokela eta min eman.*

*- Abusu psikologikoa ez dute identifikatzen indarkeriarekin. Tratutxarretan pentsatzen dutenean, eraso fisiko larrietan pentsatzen dute.*

*- Zeloak amodioaren erakusgarri direla uste dute.*

*- Kontrolatzeko jokabidea ez zaie iruditzen indarkeriaren adierazle denik.*

*- Estereotipo sexista batzuk presente daude gazteen*

*artean (“emakume objektua”ren estereotipoa oso presente dago mutilen artean).*

*- Gizartean eta ingurunean dauden emakumeenganako diskriminazio-egoerak identifikatzeko gai dira, baina beren bikote-harremanean ez dituzte identifikatzen abusuzko jokabideak eta indarkeria-egoeren garrantzia minimizatu egiten dute.*

*- “Bikotekide ideala” deskribatzean, mutilek objektu sexual gisa identifikatzen dute eta neskek “mutil bihurria” lotsagabea edo errebeldea aukeratzen dute (hori baita eredu erakargarria). Gazteengan sozializatutako erakargarritasun-ereduak ez dira berdintasunezkoak.*

- Portaera maskulino eta femeninoen eredu eta erreferentei dagokienez, "erdizkako" aldaketa dago: ezkutuko desberdintasunak gazteengan. Eskema eta eredu tradizionalak bizirik diraute (seme-alabak amari lotuta ikusten dira, neskek arduratzen dira harremanari maitasuna eta ulermena eransteaz, mutilen ardura da bikotearen alderdi publikoa...)- Matxismoa ezkutuan egon daiteke.
- Mutilek jarrera sexistagoa erakusten dute, genero-estereotipo zurrungoak eta neskek baino tolerantzia handiagoa tratu txarreko.
- Indarkeriaren maiztasuna ezkongai-harreman heterosexualetan: indarkeriagatik artatutako emakumeen %33 25 urtetik beherakoak dira.

Talde txikietan banatuta, datu horiei buruz hausnar dezatela esango diegu, ados dauden ala ez komenta dezatela, antzeko egoerarik ezagutzen duten edo horietako egoeraren batean identifikatuta sentitzen diren.



Talde handian, proiektatu "El maltrato sutil" bideoa. Proiektzioaren ondoren, galdetu nola ulertu duten, zer iruditzen zaien istorioa, egia dela uste duten gizarteak zenbaitetan, bitarteko desberdinen bidez, neskek, emakumeak autoestimu baxua izatera bultzatzen dituela, kontrolpean edukitzeko.

Hausnarketaren ondoren, idatzi kartoi mehe batean zuen taldean, ikastetxean, familian, lagunartean jarraitu beharreko jokabideen dekalogo bat, nesken eta mutilen artean bizitzako esparru guztietan berdintasunezko harremanak eraikitzeko.

# Sendatzen duten elikagaiak

## {Ebaluazioa}

*"Konpromisoa pobreen kausaren alde lan egiteko erabakia hartzea da. Horretara iristeko, pobreen errealitatearen inpaktua jasan behar da, errealitate horrek ukitu eta erasan gaitzala. Hortik sortuko da konpromisoa hartzera bultzatu gaituen sumindura etikoa".*

*Fernando Cardenal SJ*

Jardueren programazioan zehar eta taldearekin egingo den formazio-plana lantzean, beti eduki behar da presente ebaluazioaren momentua. Prozesua sistematizatzeko balio du ebaluazioak, eta ikasleekin lortutako emaitzak neurtzeko. Programan hobekuntzak eta aldaketak egiten ere lagunduko du.

### Ebaluazio on Bat egiteko gakoak:

1. Diseinu sinplea: galdera gutxiko formatua, idazkera arina, ikasleek motibazio handiagoz erantzun dezaten.
2. Hasi aurretik eta amaitu ondoren: prestatu galdetegi bat prozesuaren hasieran aurkezteko modukoa (abiaburuko oinarria ikusteko) eta bukaeran berriz pasatzeko modukoa (bakoitzaren lorpenak eta abiaburuko egoerari buruzkoak konparatzeko).
3. Mantendu datu kuantitatibo eta kualitatiboen arteko oreka. Biak beharko dituzu ebaluazio osoagoa lortzeko.
4. Ez ahaztu ebaluazio emozionala, taldearen sentimenduekin lan egin, lagun iezaiezu sentimendu horiek ezagutzen, beren burua ezagutzen, eta hortik abiatuta beren burua baloratzen.
5. Garrantzitsua da egunero tarte bat uztea gaia zer iruditzen zaien ebaluatzeko, nola sentitu diren eta zer hobetuko luketen. Saioan egindako lanari buruzko esaldi edo testu labur bat erabil dezakezu lagungarri gisa, ebaluazioa egiteko momentuan koka daitezten.

Formazioa hasi aurretik  
Beteko dute

Formazioa amaitzean  
osatuko dute.

|  |   |
|--|---|
| Izen-abizenak<br>Ikastetxea<br>Data<br>Taldearen izena<br>Noiztik zara talde honetako kide?              | Izen-abizenak<br>Ikastetxea<br>Data<br>Taldearen izena<br>Noiztik zara talde honetako kide?   |
| Nola definitzen duzu zure parte-hartzea?<br>-<br>-   | Parte-hartzeaz duzun definizioa aldatu da zerbaitetan?<br>-<br>-  |
| Zure inguruko gizonen eta emakumeen artean desberdintasunik badela uste duzu?<br>Eta globalki?<br>-<br>- | Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunei buruz duzun ideia aldatu da zerbaitetan?<br>-<br>-  |
| Taldeari zer ekarpen egin diezaiokezula uste duzu?<br>-<br>-   | Egin zenezakeen ekarpena egin duzula uste duzu?<br>-<br>-   |
| Zer espero duzu ikastaro honetatik?<br>Zer Ikastea espero duzu?<br>-<br>-                                | Espero zenuena bete dela uste duzu?<br>Zer ikasi duzu?<br>-<br>-  |
| Nola sentitzen zara hasi aurretik?   | Nola sentitzen zara formazioa amaitzean?  |
|  | Baloratu 1etik 10era formazioari buruzko gogobetetasuna.  |
|  | Baloratu 1etik 10era zure parte-hartzea.<br>Baloratu 1etik 10era taldearen parte-hartzea.<br>Baloratu 1etik 10era hizlari eta irakasleen formazioa. |

Baliagarri,  
Otxaropentsu,  
Seguru,  
Zalantzati,  
Triste, Libre,  
Zoriontsu,  
Derrojonatuta,  
Urduri...

# Saltsa Lagungarriak

## { Zabalkundea }

Jarduerei eta prozesuari zabalkundea ematea funtsezkoa da. Oso garrantzitsua da prozesu guztian zehar dokumentazio grafikoa jasotzea, gero zabalkunderako lagungarria izango delako. Bukaeran, bideoak edo muntaketak egin daitezke, edo aldizkari bat argitaratu, bizi izandako prozesua kontatzeko.

Egindako jardueri zabalkundea emateak beste batzuei lagunduko die kausa honekin bat egiten, mundu justuago bat eraikitzeko borrokan sartzen, eta antzeko prozesuak egiten ari diren beste talde batzuei ideiak emateko ere balio lezake, baina, batez ere, lanean ari zaren taldea, ikasleak, motibatuko ditu, beren burua argazkietan edo bideoan ikusten dutenean, egin duten lana aintzat hartu dela ohartuko direlako eta baloratuta sentituko direlako.

### Zabalkundearen gakoak:

1. Bisuala izatea.
2. Laburra izatea.
3. Hizkera ulerterraza erabiltzea, ez du esan nahi sinplea.
4. Umorea da gakoa, bilatu jendearen irribarrea.
5. Zehaztu zein publikori zuzenduko zaion mezua.
6. Erabili baliabide desberdinak.

## Ekintzei zabalkundea emateko lekuak:

### Lineaz kanpo:

- Klaustroetan, barne-ekintzetan, ikastetxeko bilertan parte hartzea esperientzia kontatzeko.
- Ikasleen Gurasoen Elkarteko bilerak edo formazioa.
- Eskolako festak.
- Kartelak edo diptikoak auzoan, hirian.
- Mobilizazioak edo tokiko ekintzak kalean.
- ALBOANen Elkartasunaren alde Gazte-Sarearen urteko topaketan parte hartzea ([www.educacion.alboan.org/eu](http://www.educacion.alboan.org/eu)).



### Interneten:



- [www.educación.alboan.org](http://www.educación.alboan.org), esperientziari zabalkundea emateko, erabili duzun materiala webgunean jar dezakezu, eta beste hezitzaile batzuekin partekatu, beren ikastetxeetan antzeko proiektu bat egitera anima daitezten.
- [www.tomalosdatos.alboan.org](http://www.tomalosdatos.alboan.org) mapa globalean eragina duten ekintzen zabalkundea, munduko beste leku batzuetan beste talde batzuek egin dutena ikus dezakezu.
- <http://gaurkoemakumeak.wordpress.com/> baterako hezkuntzako esperientzien zabalkundea.
- [www.change.org](http://www.change.org), plataforma honek ekintzari zabalkundea ematen lagunduko dizu, eta beste batzuei zure kausarekin bat egiteko eskatzen.
- Gazte Sarearen facebook-a: taldeak bere esperientzia beste talde batzuekin partekatzeko gunea: <http://bit.ly/red-jovenes-alboan>
- Zure ikastetxeko web plataformak, lineako guneak, bloga, facebook-a.

## 4. Mahañra! Goazen jaterra

Jarduerak eta metodologiak taldeari oinarria eta tresnak ematen lagundu dizute, neska-mutil kritikoak izan daitezen eta baliabideak izan ditzaten gizartean parte hartzeko eta beste errealitate batzuekin konektatzeko, injustizia-egoera lokal eta globalak aldatzera iristeko.

Baina esperientzia praktikoa eta bizipenak ere eman behar zaizkie ikasleei, ezagutzak barneratzeko, praktikan jartzeko eta beren burua aberasteko. Ekintza-proposamen batzuk aurkeztuko dizkizugu orain, zure taldearen errealitateari ongien egokitzen zaiona aukera dezazun edo, proposamen horiek osatuz, beste proposamen osoago bat sor dezazun.



## Ikastetxearen BARRUAN:

DBHko ikasleekin lan egiten baduzu, ekintzak ikastetxean bertan egitea errazagoa da baime-nak eskatzeko garaian; organizazio batzuek ez dute onartzen 16 urtetik beherakoen boluntario-lanik.

### **Boluntario-lana AL-BOANek sustatutako Kanpainekin:**

ALBOANen proposamenak Iparraldea eta He-goaldea konektatzeko.

### **Boluntario-lana beste organizazio batzuekin:**

Inguruko organizazioekin elkarlanean egindako boluntariotzako jarduerak.

- Antolatu Bakearen eguna ikastetxean. "Soldadu adingabeak" kanpainarekin lot dezakezu.
- Sortu ALBOAN-Boluntario-talde bat zure ikastetxean. Txoko bat izan dezakezue ikastetxean "Eskola Kanpin denda batean" kanpainari buruzko informazioa aurkezteko; karteekin dekora dezakezue eta hileroko jardueraren bat antolatu.
- Jarri Bidezko Merkataritzako postu bat Ikastetxearen Eguneko jaietan.
- Kolaboratu eskola-laguntzako organizazioekin, ikastetxean bertan hezkuntza sendotzeko jarduerak antolatuz.
- Antolatu mahai-inguru bat eskolan, zuen antzeko neska-mutiek boluntario lana egin dezaketenean inguruneko organizazioak aurkezteko.

ALBOANen Boluntariotzako eskaintza ezagutu nahi baduzu, idatziezazu [educación@alboah.org](mailto:educación@alboah.org) helbidera.

Esperientzia sinestezina, ea datorren urtean ere horrelako zerbaitetan jarraitzeko aukera dudana. Eta jende guztia animatzen dut era honetako taldeetan parte hartzera.. (16 urte, boluntarioa eta Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxeko ikaslea).



## Kastetxetuk Kanpora:

Batxilergoko ikasleekin lan egiten baduzu, erraza izango zaizu lankidetzan aritzeko organizazioak aurkitzea auzoan.

### **Boluntario-lana ALBOANek sustatutako Kanpainekin:**

ALBOANen proposamenak Iparraldea eta Hegoaldea konektatzeko

### **Boluntario-lana beste organizazio batzuekin:**

Inguruko organizazioekin elkarlanean egingdako boluntariotzako jarduerak.

- Aurkeztu Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina auzoko plazan.

- Parte hartu Zero Pobrezia kanpainako jardueretan.

- Antolatu flashmob bat parke batean Emakume Ausartak kanpainarekin.

- Bildu sinadurak Gatazkarik gabeko teknologia kanpainaren alde, hiriko hainbat lekutan.

- Parte hartu ALBOANen Elkartasunaren alde Gazte-Sarearen topaketan, zure lana beste batzuekin partekatzeko.

- Jantoki sozialak.

- Desgaitasuna dutenen elkarteak.

- Adinekoen egoitzak.

- Etorquinekin lan egiten duten elkarteak.

- Emakume-taldeak.

## Eta gero, zer?

Eskolako denbora mugatua da ikastetxean, horregatik, zure taldeko ikasleei eskaini behar diezu prozesua bukatzeko inplikatzeko eta parte hartzeko beste aukera batzuetara jo dezatela. Ziurtatu beste organizazio batzuk ezagutzen dituztela, lot itzazu ALBOANen Elkartasunaren alde Gazte-Sarearekin, saiatu prozesu hauetan jarraitu nahi duten beren adineko beste gazte batzuekin harremanetan jar daitezten... ez dezatela norabidea gal!



## 5. sukaldako trikimailuak


ALBOANen 10 urtetik gora daromatzagu kozinan, beste irakasle batzuei hainbat prozesu eta bidetan laguntzen. Esperientzia horiek denak errezeta-liburu honetan jaso ditugu eta gako batzuk emango dizkizugu martxan jartzen zarenean lagungarri izan dakizkizun.



Boluntario izatea eta talde honetan sartuta egotea, mundua aldatzeko nire harri-koskorra jartzea da. (14 urte, boluntario eta Bilboko Sagrado Corazón Rekalde ikastetxeko ikaslea.)

- Zure motibazioa funtsezkoa da taldeari laguntzeko, zuk kutsatuko diezu energia eta inplikatzeko gogoia. Zu konprometitzen zaren neurrian, ikasleak ere konprometutuko dira.
- Sortu konfiantza-giroa taldean elkarriketa sustatzeko, sentimenduak adieraz ditzaten, iritziak elkarrekin truka ditzaten. Horrela lortuko duzu elkarri entzuten ikastea, elkarri aholkuak ematea, eta gatazka-egoerak modu positiboan kudeatu ahal izango dituzu.
- Sistematzatu proiektu osoa, saiokak, formazioak, ekintzak edo boluntario-lana. Dena biltzen baduzu ongi sistematzatutako proiektu batean, errazagoa izango da hezkuntza-komunitate osoak ulertzea, bere egitea eta sostengatzea.
- Eman zabalkundea taldeak egiten dituen ekintza guztiei. Gehiago egitera eta inplikatzen jarraitzera animatuko ditu.
- Lotu beti tokikoa globalarekin, egiten dituzuen ekintzek eragina dute beste errealitate batzuetan, Iparraldea Hegoaldearekin.
- Utzi ikasleei erabakiak hartzen prozesuan zehar. Haien ekimena sustatuko duzu horrela eta tresnak emango dizkiezu gero eta ardura gehiago har ditzaten.
- Konbinatu pertsona desberdinek emandako formazioa, ikastetxeko hizlariak eta kanpoko lekukotzak konbinatzea ikasleen interesa biziagotzeko formula egokia da.
- Egituratu ongi proiektua hasieratik. Hasteko, idatzi zure ideiak hemen, koaderno honetan, bukaeran duzu horretarako lekua!
- Sustatu talde-giroa, taldeko sentitzea, talde-identitatea. Batasuna emango die eta sendotu egingo dira talde gisa; inpaktu handiagoko ekintzak egingo dituzte.
- Lotu proiektua ikastetxeko beste gai batzuekin, egin ezazu transbertsal eta ikusgai.
- Azpimarratu ikastetxeak zure lana eta taldearena aitortzeak duen garrantzia, lan ona egiten ari zarete.
- Zaindu taldekide guztiak, erreferentziako pertsonak funtsezkoak dira.
- Lan egin sarean beste organizazio batzuekin, aberagarria izango zaizue proposamenetan eta zuen lorpenak areagotu egingo dira.
- Eta ez ahaztu prozesu mantsoa dela hasten ari zarena, emaitzak epe luzera emango dituela. Ez desanimatu!

## 6. Tresna Lagungarriak



Errezeta on pilo bat aurkeztu dizugu, eta ziur gaude primeran prestatuko dituzula, baina une jakin batzuetan lagunduko dizuten tresna batzuk ere badaudela gogorarazi nahi dizugu.

## Galde iezaguzu beste proposamenik dugun!

ALBOANen egoitzetan

### Bilbo

Aita Lojendio kalea 2, 2.  
48008.  
94 415 11 35

### Donostia

Andía kalea, 3  
20004  
943 275 173

### Iruñea

Barañaingo etorbidea, 2  
31011  
948 231 302

### Gasteiz

Monseñor Estenaga kalea, 1  
01002  
945 202 676

\* Bisitatu gure baliabide-zentroa ere!

Interneten: [www.alboan.org](http://www.alboan.org) | [www.centroderecursos.alboan.org](http://www.centroderecursos.alboan.org) | [www.educacion.alboan.org](http://www.educacion.alboan.org)

## JARRI HARREMANETAN BIDEARI EKIN DIOTEN BESTE IRAKASLE BATZUEKIN!


- Iruñeko Colegio San Ignacio ikastetxea: Gabriel Moreno
- Donostiako San Ignacio de Loyola Ikastetxea: Jon Arruti
- Tuterako Colegio San Francisco Javier ikastetxea: Jose Ángel García
- Bilboko Nuestra Señora de Begoña - Jesuitak Indautxu: Roberto Navarro
- Durangoko San Jose Jesuitak Ikastetxea: Eva Rodríguez
- Bilboko Sagrado Corazon Rekalde ikastetxea: Mertxe Aguirre
- Gasteizko EGBIDE Fundación Diocesanas - Jesús Obrero Fundazioa: Ainhoa Pereda
- Muskizko Centro Formación Somorrostro: Miren Ruiz

Antzeko esperientziak egin dituzte beren ikastegietan, dei egin diezaikezu edo harremanetan jarri, eta nola egiten duten kontatuko dizute.

*Zuk eskatu, eta lagun egingo dizugu!*


[educación@alboan.org](mailto:educación@alboan.org)

# 7. Idatzi hemen ikasturte honetarako zure mehua



| Kozinatzen hasteko oinarriko osagaiak                  | Aperitiboa   | Hasierakoak                                  |
|--|--|--|
| 1. Ikastea eta Zerbitzua ematea                        |  | 1. Nor gara<br><input type="checkbox"/>      |
| 2. Ikas-komunitateak                                   |  |  |
| 3. Herri-hezkuntza                                     |  |  |
| 4. Ikaste kooperatiboa                                 |  | 2. Erortzera noa<br><input type="checkbox"/> |
| 5. Hezkuntzako ekintza-plana boluntariotzarik abiatuta |  |  |
| 6. Pedagogia inaziotarra                               |  |  |
| 7. Parte hartzen ikasteko hezkuntza                    | Bidean orientatzen laguntzeko galderak<br><input type="checkbox"/> | 3. Tren itsua<br><input type="checkbox"/>    |
| 8. Arte komunitarioa                                   |  |  |
| 9. Pedagogia eraldatzailea                             |  |  |
| 10. Gizartean eragiteko metodologia                    |  |  |
| 11. Design for Change                                  |  | 4. Gure taldea<br><input type="checkbox"/>   |
| 12. Konpromisoa hartzeko prozesuak.                    |  |  |



| Lehenengo platerak   | Bigarren platerak  | Postreak   | Sendatzen duten elikagaiak  | Saltsa lagungarriak  | Mahaira!<br>Goazen jatera   |
|--|--|--|---|--|---|
| 1. Etorkizun-aukerak, ametsak partekatzea <input type="checkbox"/>       | 1. Papalagiak <input type="checkbox"/>                                   | 1. Herritertasunari buruz... <input type="checkbox"/>            | Hasteko eta amaitzeko ebaluazio fitxa. <input type="checkbox"/>     | Klaustroetan parte-hartzea <input type="checkbox"/>  | Tokiko ekintzak kalean <input type="checkbox"/>   |
| 2. Binta-ren ideia bikaina <input type="checkbox"/>                      | 2. Mapa hiz-tunak <input type="checkbox"/>                               | 2. Lidergo-dantza <input type="checkbox"/>                       | Ebaluazio emozionala era sentimenduetatik. <input type="checkbox"/> | Eskolako festak <input type="checkbox"/>   | Txoko bat ikastetxean kanpaini buruzko informazioa aurkezteko <input type="checkbox"/>      |
| 3. Motxilan <input type="checkbox"/>                                     | 3. Munduko merkatuak <input type="checkbox"/>                            | 3. Munduko gauzarik ederrena <input type="checkbox"/>            |   | IGE <input type="checkbox"/>   | Egun zehatz batean parte-hartzea <input type="checkbox"/>                                   |
| 4. Globingo <input type="checkbox"/>                                     | 4. Kili-kolo <input type="checkbox"/>                                    | 4. Parte-hartzearen kiniela <input type="checkbox"/>             |   | Kartelak edo diptikoak auzoan, hirian. <input type="checkbox"/>  | Ausoko organizazioekin elkarlanean aritu <input type="checkbox"/>                           |
| 5. Milurteko Garapen Helburuen mandalak margotu <input type="checkbox"/> | 5. Non nago? <input type="checkbox"/>                                    | 5. Silueta <input type="checkbox"/>                              |   |  | Boluntariolana herriko organizazioekin <input type="checkbox"/>                             |
| 6. Gatazkarik gabeko teknologia <input type="checkbox"/>                 | 6. Mundu uniforme. Mundu anitza <input type="checkbox"/>                 | 6. Bestelako mundu bat posible da. <input type="checkbox"/>      |   | Mobilizazioak edo tokiko ekintzak kalean <input type="checkbox"/>  | Sinadurak bildu <input type="checkbox"/>  |
| 7. 7. Munduko erlijioak <input type="checkbox"/>                         | 7. Nolako beturrekoak dituzu? <input type="checkbox"/>                   | 7. Hitzen bidez bide berriak erakitzea. <input type="checkbox"/> |   | www.educación.alboan.org/eu, <input type="checkbox"/>  | Parte hartu ALBOA-Nen Elkartasunaren alde Gazte-Sarearen topaketan <input type="checkbox"/> |
| 8. Zuzena ala okerra? Edota erlatiboak dira? <input type="checkbox"/>    | 8. Zurrumurruren aurka <input type="checkbox"/>                          | 8. Gure historia alda dezakegu <input type="checkbox"/>          |   | http://bit.ly/red-jovenes-alboan <input type="checkbox"/>  |   |
| 9. Tai Chi Chih <input type="checkbox"/>                                 | 9. Zertan erabiltzen dira aurrekontu publikoak? <input type="checkbox"/> | 9. Tratu txar sotila eta nesken kontuak <input type="checkbox"/> |   | <input type="checkbox"/>  |   |











ALBOANen mundu zuzenago eta justuago bat eraikitzeko lan egiten dugu eta erronka horri aurre egiteko Garapenerako Hezkuntzaren aldeko apustua egin dugu, gero eta interkonektatuagoa den mundu honetan, pertsona kritikoak, koherenteak, beren ekin-tzen erantzule izango direnak eta herritar gisa dituzten eskubideak eta betebeharrak egikaritzeko gai izango direnak formatzeko.

Herritarrek sortzeko esparru horretan, errezeta-liburu hau prestatu dugu, egiten duten lanaren bitartez mundua eraldatzea bilatzen duten hezkuntza formaleko nahiz ez-formaleko hezitzaileei laguntza eskaini nahian. Ikasleekin lan egiten laguntzeko errezetak dira, gazte horiei solidaritate-balioak transmititzen laguntzeko, berak ere aldaketaren parte izateko egin ditzaketen ekintza konkretuak proposa diezazkiezun.

Eta, jakina, errezeta hauengatik duzun interesa eskertzen dugu, izan ere, errezeta hauek prestatzearekin, zu ere aldaketaren parte zara, eraldatzen jarraitzen duzu, eta bestelako mundu posible hori aurki errealitate izan dadin laguntzen duzu.



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



ALBOAN



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO